



DONOSTIAKO NAZIOARTEKO KONFERENTZIA

**ETAri eta gobernuei deia:
bakea eta elkarrizketa**



Euskal subiranotasunaren aukerak Juan Jose Alvarez eta Francisco Letamendia



Iritzia

Rafa Larreina
Markel Olano
Maribi Ugarteburu
Patxi Zabaleta



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteke Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloan Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



Deabruaren abokatua

- **Nagore Aranburu:** «Baliente galanta jendeari zer gustatuko zaion dakiela uste duena!». SUSTRAI COLINA / 4

Asteke gaia

- **Donostiako Bake Konferentzia.**
 - **Kronika.** Bakearen xenda bihurria urratzeko ordua. URKO APAOLAZA / 5
 - **Analisia.** Aieteko leihotik bakea ikusten da. XABIER LETONA / 10
 - **Iritziak.** XABIER AIERDI, GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR, JOSE RAMON ETXEZARRETA, AINHOA LARRAÑAGA / 12

Pertsonaia

- **Ainhoa Oiartzabal:** «Informazioa ordenan jartzeko kazetaritza egiten dut». MIEL A. ELUSTONDO / 14

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Sarrionandiaren (literaturaren) alde. BEÑAT SARASOLA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21
- Irakaskuntzaren kontra. XABIER ETXANIZ ERLE / 22
- **Txandan** Zein onak garen. AMATIÑO / 22
- “Mundulogia” ulertzeko. GORKA MORENO MARQUEZ / 23
- **Hiruko txikian** Ohiko ostatura. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** *Dukan* dietari jarriak. AGIN REZOLA / 24

Erdiko kaiera

- **Fellini,** gezurraren magoa. ION OLANO CARLOS / 25
- Sarrera merkeak ez du museoa betetzen. IRATI SARASUA / 28
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34
- **Abarrak** ENEKO DORRONSORO / 35
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Iñaki Carro:** «Ziur naiz epaileak arrazoi emango digula Kukutzarekin». URKO APAOLAZA / 39
- **Hauteskundeak Argentinan.** Zer egin dute Kirchnertarrek argentinarren alde? ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 42
- **Hizkuntza gatazka.** Hernaniko Udalak euskaraz egin nahi du lan. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Net Hurbil** Jakintsuaren bertso berriak kazetari jarriak. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Europa batua? JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL / 50

“Baliente galanta jendeari zer gustatuko zaion dakiela uste duena!”

Nagore Aranburu | Orotarikoa

Zinetik dator eta monologoetara doa.

SUSTRAI COLINA

Argazia: Dani Blanco

Zergatik erantzuten dituzu pelikula ikusi ez duten kazetarien galderak?

Zazpi egunkaritan aterata askoz aukera gehiago daukagulako jendearengana iristeko. Ez gara Almodovar edo Banderas, komunikabideen eskuetan gaude.

Ez esan zuek ere negar eta negar ari zaretela aretoak husten ari direlako.

Ez naiz hain dramatikoa. Pelikula edo antzerki obra onak egiten direnean jendeak erantzuten du. Kexatu beharrean, pauso bat aurretik joan, eta jendearengana nola iristen segi pentsatu behar genuke. Ez gara preokupatu behar, okupatu baizik.

Jendearen gustua egiten okupatu?!

Sortzerakoan akats larria da jendearen gustuari begira egotea. Ez dut ezagutzen horrela sortu eta funtzionatu duen ezer. Publikoaren inteligentzia aurrez baloratzea da hanka sartzeko berme gorenena. Ez gara manualekoak.

Zinema komertzialaren guruen ustez, bai.

Zinema, antzerkia edo telebista, istorioak kontatzeko bideak dira, baina bide horiek entzulearekiko elkarrizketan oinarritzen dira, ez monologoan. Horregatik, baliente galanta jendeari zer gustatuko zaion dakiela uste duena!

Baita EITBra fikzioa saltzera doana ere.

Ez dagoela dirurik, murrizketa handiak egon direla... Gauzak egiten hasten gara ala ixten dugu, baina ezin dugu zero audientzia duen

kate baten agonia luzatu. Noiztik ez duzu entzun ETB1-eko ezeri buruzko komentario-rik?

Madrilera joan nahi duzu, ala?

Madrilera joateak gartzetan apurua ematen zidan eta orain nagia. Hori bai, deituz gero berehala joango nintzateke. Erronka berriak asko gustatzen zaizkit, oso gustura egingo nuke erdaraz lan... Baina badakizu Madrilen zenbat aktore dauden ni baino fotogenikoagoak?

Eskerrak aktorea ez ezik, gidoilari, monologo-egilea... eta orotariko emakumea zaren!

Euskal Herrian, ofizioan, lasai bizirauteko modu bakarra da. Badakit ezingo naizela inoiz ezertan espezializatu, ez naizela sekula gidoilari distiratsua izango, baina aktore izateak idazten laguntzen dit, eta gidoilari izateak aktore izaten. Ez da gutxi, ezta?

Geldi egoteari izan ezik edozeri topatzen diozula alde ona, alegia.

Ez dago geldi egotea bezalakorik zuloan sartzeko. Dena haizea hartzera bidaltzeko gogoia ematen du. Eskerrak mugimenduak eta ekiteak gutxiago pentsatzen eta aurrera egiten laguntzen didaten!

Carpe diem, my friend...

Carpe diem? Ofizio ezegonkorrean nabilen munduko pertsona “segurolena” naiz. Zer esanik ez haurtzaindegia urte osorako ordaindu behar dudantetik. ■



Donostiako Nazioarteko Konferentzia

Bakearen xenda bihurria urratzeko ordua

Donostiako Bakearen Etxean nazioarteko sei pertsona esanguratsuk egindako adierazpenak ez du inor hotz utziko. Mugarri garrantzitsua da Euskal Herrian bizi izan den gatazka konpontzeko bidean. Hemen duzue Aieteko Jauregian bizi izandakoaren zazpi orduko kronika.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

Ezkerretik eskuinera: Gerry Adams, Gro Harlem Brundtland, Bertie Ahern, Kofi Annan, Pierre Joxe eta Jonathan Powell.
Irlandako lehen ministro ohiak irakurri zituen konferentziaren ondorioak.



PIERRE DUCASSEK duela mende eta laurden plantatu zituen Aieteko sekuoia eta landaretxoak. Lorategi paisajista egin nahi zuen, inguruaren plagioa, natura bortxatu gabe. Lorategi mota horrek arrakasta izan zuen Frantziako iraultzaren garaian, orden absolutistatik eta lorategi simetrikoetatik askatzeko modua baitzen. 2011ko urriaren 17ko Donostiako Adierazpenak Ducasseren lorategiaren espirituari heldu diola irudi luke: bortxarik gabeko garai baten aurrean gaudela nabarmena da. Aieten, nazioarteko lider eza-gunek deia egin zien Euskal Herrian bizi dugun gatazka iraunarazten duten aktoreei, absolutismoaren *parterreak* betiko utzi, eta bakea eta elkarriketaren xenda bihurritxua urratzeko.

Urriaren 11n aurkeztu zuten *Euskal Herrian gatazkaren konponketa sustatzeko Nazioarteko Konferentzia*. Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Paul Rios Lokarriko koordinatzailea, Pierre Hazan Harremanetarako Nazioarteko Taldeko (HNT) kidea eta Jonathan Powell Tony Blair-en kabineteko burua. Powell oso engaiaturik ibili zen 2007ko Genevako negoziatioetan, baina isilean mantendu da geroztik, urriaren 11 arte: “Heldu da momentua Europako azken gatazka armatua konpontzeko” adierazi zuen ekitaldian. Powellen hitzek eta Tony Blair-en balizko presentziak alarma guztiak piztu zituen eta konferentziari tamaina hartzeko balio izan zuen. Alderdi abertzaleek, sindikatuak eta gainerako eragileek segituan baieztatu zuten Aieten izango zirela.

Aldiz, Espainiako Gobernuak, PSOEek eta PPK konferentziaren aurrean hartutako jarra gogorak ez zuen esperantzarako tarte askorik uzten. Ramón Jáuregui ministroaren esanetan Espainiako Gobernuak ez zuen konferentziarekin “inolako loturarik”. Patxi Lopez lehendakariak ere ez zela Bakearen Etxean izango adierazi zuen, AEBetara egin beharreko bidaia bat medio. Hala, *El País* egunkariak hizki larriz jarri zuen konferentzia “porrotera kondenaturik” zegoela. Gainera, urriaren 12ko “festa nazionala” aprobetxatuz edo, mespretxuz hartu zuten Espainiako komunikabideek asteleheneko ekitaldia, eta apenas eman zioten lerrorik.

Baina ostegunean, urriaren 13an, berriz ere egin zuen salto albisteak hedabideetara: PSEk ordezkartza bat bidaliko zuela azaldu zuen. Sozialisten ziabogak berriz ere ikustarazi zuen Aieteko konferentzia su geldoan egositako heltzekoa zela. Nolanahi ere, hortik bi egunetara Paul Riosek eta Silvia Casalek

(HNT) jakinarazi zuten nazioarteko zein politikari izango ziren urriaren 17an Donostian: Kofi Annan NBEko idazkari ohia, Bertie Ahern Irlandako Errepublikako lehen ministro ohia, Gerry Adams Sinn Feineko lehendakaria, Gro Harlem Brundtland Norvegiako lehen ministro ohia, Pierre Joxe Frantziako barne ministro ohia eta Jonathan Powell bera. Tony Blair bertan izatekoa zen, baina agenda kontuak medio, azkenean Powellek ordezkartuko zuela azaldu zuten antolatzaileek.

Ikusmina Aieten

Urriaren 17an, eguerdiko 13:00etarako nazioarteko liderren auto ofizialak Aieteko lorategiaren ateetan zeuden jada. Banaka pasarazi zituzten antolatzaileek, protokolo zorrotza mantenduz. Hasiera batean Patxi Lopez lehendakariarentzat zegoen gordeta anfitrioi lana, baina hura ez zegoenez, Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak eta Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiak egin zieten ongietorria gonbidatuei. Jauregiaren atarian sekulako ikusmina. 200 kazetari baino gehiago zeuden izena emanda eta 50 kamera inguru izango zirela zioten zigarro arteko

berriketaldiek. Argazkilariak txandaka pasarazi zituzten jauregi barrura, ezin kabiturik, eta urduritasun handia zegoen, historikoa sumatzen zen egunean. Espekulazio handia zegoen konferentziatik irtengo zenaz. Testuinguruak ere hartara laguntzen zuen. Konferentziak ETARI armak uzteko deia egingo ziola oso zabaldua zegoen

jada. EAJko Andoni Ortuzar izan zen lehengoetakoa ildo hori jorratzen: “Konferentziaren ondoren ETAK zerbait biribila esan beharko du”, iragarri zuen egun batzuk lehenago. Bestalde, aste horretan bertan ezker abertzaleak batzar nazionala egin zuen eta herri ugaritan herri-batzarrak antolatu zituen *Zutik Euskal Herria zehazten* izenarekin. Gatazkaren alde batekoek eta bestekoek hartutako konpromisoez ere aritu ziren bilera horietan eta konferentzian “bost puntu” adieraziko zirela garbi zegoen. Konferentziaren egunean, *The Guardian* egunkariak artikulua plazaratu zuen esanez ETAK “aste honetan bertan” adieraziko zuela bere amaiera. Baina, zikulu-saltsa horren erdian, konferentziaren ondorioak eta azken adierazpenaren zirriborroa giltzapean gordeta zuten antolatzaileek.

Behin kazetariak inguruko tabernetara barreiatuta, jauregiaren barruan, albo bateko areto “blindatuan” –lehio-ateak itxita–, kon-

Aurkezpen ekitaldian Jonathan Powell-ek esandakoak eta Tony Blair-en balizko presentziak alarma guztiak piztu zituen, eta konferentziari tamaina hartzeko balio izan zuen



Iñigo Urkullu (EAJ) goiko argazkian. Eskuinean Rufi Etxeberria eta Juan Joxe Petrikorena (Ezker Abertzalea) bizkarrez dagoen Pello Urizarrekin (EA). Erdiko irudian Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusia eta Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatea UGT, CCOO eta LABeko ordezkari sindikalekin eta Rebeka Uberarekin (Aralar). Behean Jesus Egiguren eta Carlos Totorica (PSE-EE) prentsarekin berbetan.

ferentziari ekin zioten. Mahai nagusian nazioarteko sei lagunak, eta haren aurrean eragile politiko, sindikal eta sozialetako ordezkariak. Hiru minutu eskas zituen bakoitzak bere hitzalditxorako; argumentuak, ideiak eta ikuspegiak azaltzeko. Kasu honetan ere protokoloa oso zorrotz mantendu zen: “Agian, Jesus Egiguren izan da hitz egiteko denbora muga igaro duen bakarra”, zioen barruan izandako ordezkari batek, ekitaldiaren amaieran. Antza denez, Egigurenek PSOEn diskurtso ofiziala jarraitu zuen, baina “garaituen eta garailen” tesiari ñabardura egin zion: “Demokrazia da irabazlea eta biolentzia galtzailea”, esan omen zuen PSEko lehendakariak.





Nazioarteko Bake Konferentziako protagonistak: Brian Currin abokatu hegoafrikarra eta Bertie Ahern Irlandako lehen ministro ohia elkarri eskua ematen (goian ezkerrean). Pierre Joxe Frantziako barne ministro ohia eta Jonathan Powell, Tony Blairren konfiantzazko gizona (goian eskuinean eta behean ezkerrean), biak ere Lokarriko Paul Riosekin. Behean, eskuinean, Gerry Adams (Sinn Fein) eta Gro Harlem Brundtland Norvegiako lehen ministro ohia.

Lorategiko xendak

Arratsaldez, taberna eta jatetxeetako mahaiak hustu ahala, betetzen joan zen berriz ere Ducasseren unibertso naturala. Kafe ondoko lasaitasuna nagusi, eguzkiaren izpiak epel, itsas haizea leun. Denen komentario faborittoa: “Eguraldia ere lagun!”. Arratsaldeko 16:00ak inguruan baina, armaniak paso eman zion nolabaiteko nahasmenari. Zenbait argazkilarik korrika abitu ziren sarrera ingurura. Covite biktimen elkarteak jadanik jakinarazita zuen Bakearen Etxera gerturatuko zela *Inpunitateari ez* izeneko bere dekalogo aurkeztera. Ruben Múgica Fernando Múgica Herzog-en semeak honela adierazi zuen: “Aieteko Jauregian Espainiako demokraziaren kontra Trantsiziotik gertatu den erasorik bortitzena burutzen ari da”.

Arratsaldeko bostak eman aurretik jauregiaren atzealdea lepo zegoen kazetariz. Itzultzeko gailuak eskuz esku, smartphoneak dantzan eta objetiboak enkoadre onenaren bila. Zurrumurrua: konferentzia atzeratzen

Arratsaldeko bostak eman aurretik jauregiaren atzealdea lepo zegoen kazetariz. Itzultzeko gailuak eskuz esku, smartphoneak dantzan eta objetiboak enkoadre onenaren bila

ari zen eta ondorioak 17:30ean leituko zituztela. Kanpoan zeuden antolatzaileek ez zekiten ezer, “agian zertxobait” atzeratuko zela, besterik ez. Bostak pasatxo eta jauregiko atearen leihoan hainbat aurpegi daude, gortinak mugitzen dira. Badatoz. Garitano da lehena, eta haren atzetik Izagirre eta gainerako ordezkariak. Nazioarteko sei liderrek

pauso lasaian jaitsi dituzte eskailerak, argazkilariei so. Bertie Ahernek hartu du hitza: “Euskal Herrira etorri gara gaur Europako azken konfrontazio armatua behin betiko gaintzeko garaia iritsi dela eta posible dela pentsatzen dugulako”, eta segitu du hitz egiten fede onaz, ausardiaz, estaturu senaz, elkarrizketaz eta

bake iraunkorraz. Amaieran, adierazpenaren bost puntuak irakurri ditu (ikus ondoko koadroan). Funtsean, ETArri eta Espainiako eta Frantziako gobernuei eskatzen diete, bakearen eta elkarrizketaren xenda har dezatela, xenda bihurria, baina zentzuzkoena, bortxarik gabea. ■



Adierazpena puntuz puntu

1- ETArri dei egiten diogu bere jardura armatuaren behin betiko amaiera iragartzen duen adierazpen publikoa egiteko eta soilik gatazkaren ondorioez aritzeko Espainia eta Frantziako gobernuari elkarrizketarako deia egiteko.

2- Adierazpen hori egingo balitz, dei egiten diegu Espainiako eta Frantziako gobernuari baiezkoa eman eta gatazka armatuaren ondorioez soilik aritzeko elkarrizketak zabaltzeko.

3- Zabaldutako zauri pertsonalak eta sozialak sendatzeko lagungarria delako, eginiko minaren aitortzea, biktima guztien aitortza eta berauen laguntza, eta errekontziliazioan aurrera egiteko urrats sakonak eman daitezkeen eskatzen dugu.

4- Gure esperientziak azaltzen digunez, askotan

gatazka konpontzeko orduan badira bake iraunkorra eskuratzeko lagungarriak diren aztertu beharreko beste gaiak. Ildo horretan, eragile ez bortxatzaileak eta ordezkari politikoak bil daitezkeen iradokitzen dugu, gai politikoak eta gaiarekin zer ikusirik dutenak eztabaidatzeko, herritargoa kontsultatuz, horrek guztiak gatazkarik gabeko aro berria sortzen lagun dezakeelako. Gure esperientziak azpimarratzen duenez, hirugarren parte hartzaileek, begiraleek edota laguntzaileek, elkarrizketa bideratzen laguntzen dute. Hemen ere, gatazkarik zer ikusirik duten parteek horrela erabakiko balute, elkarrizketa nazioarteko laguntzaileen bidez ere bidera liteke.

5- Errekomendazio hauen bideratzea aztertzeko Jarraipen Batzordea eratzeko prestutasuna adierazten dugu.



Goian, ezkerrean, Kofi Annan, NBEko idazkari nagusi ohia, Aieteko jauregiaren atarian konferentziako partaideak agurtzen. Eskuinean, Brian Currin kazetari saldo baten erdian, adierazpenak egiten. Behean, konferentziaren ondorioak irakurri zituzten unea, parte-hartzaileen begiradapean.



Aieteko leihotik bakea ikusten da

Donostiako Nazioarteko Konferentziak bakearen bidean orain arte inoiz izan den irudi garrantzitsu eta entzutetsuena utzi dio euskal gizarteari. PP izan ezik denak egon dira bertan. Salbu eta Patxi Lopez, lehendakari gisa. Hona gertatutakoaren balizko interpretazio bat.

XABIER LETONA

Argazkiak: Dani Blanco

EUSKAL HERRIAK bizi duen gatazkak konponbide saio ugari izan ditu azken 30 urteetan. Garaikoetxea lehendakariak 80ko hamarkadaren hasiera aldera eratu zuen alderdien mahaia, Aljerreko negoziazioak, Elkarrik antolatutako bake konferentziak edo Eginko Mahaia, Lizarra-Garaziko eta Loiolako ahaleginak... Horietako batzuetan, Loiolan bereziki, konponbidearen aukera eskuekin ukitu bada ere, azkenean bakea atzamarren artean irristatu da gatazka izoztuari bide emanez.

Baina oraingoan bai, astelehenean horixe arnastu zen Donostian, gatazkaren behin betiko konponbiderako ate garrantzitsua ireki zela Aieteko Bakearen Etxean. Eta zer da han gertatu dena? Kofi Annan buru, nazioarteko ordezkari oso garrantzitsuak adierazpena egin zuela eta Nazioarteko Konferentziak, berea egin ez arren, babesa eman diola adierazpen horri. Bost puntu ditu nazioarteko eragileen adierazpenak eta hiru mezu nagusi.

Inportanteena eta entzutetsuena iragarria zegoen, baina horregatik ez du garrantzirik galdu: ETArri bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera eskatzen zaio. Aldi berean Espainia eta Frantziako gobernuak ere elka-

ETAk behin betiko amaiera ematen badu Espainiako Gobernuak hasiko da mugimenduak egiten presoen inguruan, beti ere legeak ahalbideratzen duenaren barruan

Zapatero badoa eta Rajoy badator, aldaketa testuinguru horretan egin da Konferentzia.

rrizketarako deia egiten zaie, ETAk jarduera etenez gero, erakunde armatuarekin elkarrizketa “teknikoa” bideratu dezan. Eta hirugarren dei esanguratsuen alderdiei bideratua dago, alderdien mahaia osatu eta bertan gatazkaren muinean diren gaiak bideratu ditzaten.

Testuingurua beti da garrantzitsua gisa honetako gertaera ulertzeko eta Konferentzia honek ere badu berea. Hona testuinguruaren

interpretazio bat: ezker abertzaleak Zutik Euskal Herria onartzen duenetik argi da horrek inflexio puntu bat markatzen duela bere jardun historikoan eta horrekin baita euskal gizarteko normalizazio politikoan ere. Harrezkero, ezker abertzaleak urrats oso esanguratsuak eman ditu, horietara apurka

Gernikako Akordioaren eragileak bilduz eta, fase honetan garrantzitsuen, aldebakarreko ikuspegiz.

Aldi berean, gatazken konponketan aditua den nazioarteko ingeniari oso abian jartzen da –seguruenik 2006tik geratu ez dena–, gaia nazioarteratuz eta aurkarien arteko bitartekaritza lanak bideratuz. Bitartekaritza lan horietan iristen da PSOeren Gobernuarekiko zelanbaiteko konpromisoetara, funtsean halako zerbaitetan laburbildu daitekeena: ETAk behin betiko amaiera ematen badu Espainiako Gobernuak hasiko da mugimenduak egiten presoen inguruan, beti ere legeak ahalbideratzen duenaren barruan. Eta denok dakigu hainbeste estutu den kartzelen munduan, legeak asko ahalbideratzen duela.

Baina hori guztia gertatzen ari den bitartean, krisi ekonomikoak indar handiz kolpatzen du Espainiako Gobernu eta egoera ekonomiko eta politikoak hauteskondeak aurreratzera behartzen du Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako gobernu burua.





Donostiako Bake Konferentzia inflexio puntua izango da euskal politikaren eragile guztiak mahai bakarrean biltzeko.

Hortik aurrera, ez da gaitza irudikatzea azaroaren 20tik aurrera PP izango dela agintean Moncloan eta Mariano Rajoyk bideratu beharko duela bake prozesua.

Testuinguru horretan dator bilkura hau. Heldu da, beraz, ETArekin amaiera taularatzeko unea eta Aieteko Konferentziak aukera bikaina ematen dio horretarako. Heldu da alderdien arteko elkarrizketa politikoari beste bultzada bat emateko unea. Eta heldu da baita ere PPri begira jartzeko unea, Rajoyri argi adierazteko ezin duela hankaz gora bota orain arteko lana, eta bake prozesuarekin engaiatu behar duela, berak duelako gatazka historiko bati amaiera emateko aukera.

Nazioarteko bitartekaritzan lanetan ari den pertsona esanguratsu bati entzundakoa da: "Politikariak ez dira mugitzen presiorik jasozten ez badute". Eta bai, logikoa da pentsatzea Konferentziaren helburuetakoa dela datorren PPren gobernu presionatzea. Bistan da, Kofi Annan eta gainerako nazioarteko eragileak ez dira lorontzi gisa etorri, Espainian askok eta euskal gizartearen oso gutxi baldar iradoki duten moduan.

Denborak esango du interpretazio honek guztiak baduen zerikusirik errealitatearekin. Edozein modutan, interpretazioetatik kanpo dago honek euskal gizartearen sortu duen ilusioa. Herritarren gehiengo handiak inoiz baino gertuago ikusten du bakearen aukera. Egia da badela gizarte mailako korrante bat

Nahi diren gorabeherekin, baina PSE, UGT eta CCOO bake konferentzian izateak badu mugarririk itxura

etsipen handiz bizi duena normalizazio prozesuaren nondik norakoa, egia da orain arte PPk eta PSOEk akuitatu dutela sektore hori, baina egia da baita ere "garaile eta garaituen" ikusmoldea elikatzen duen gizarte multzo hori gero eta txikiagoa dela. Edo bestela esanda, konstituzionalismoaren sektorean ere bake gogoia mendekuari garaitzen ari zaiola. Nahi diren gorabeherekin, baina PSE, UGT eta CCOO bake konferentzian izateak badu mugarririk itxura. EAJren inplikazioak ere azkenean bultzada publiko esanguratsua jaso du jeltzaleek Konferentziari emandako sostengu tinkoarekin. PPren bakardadea gero eta agerikoagoa da bakegintzaren gaian eta UPyDren ikuspegia erabat marjinala litzateke, biktimen gaia astintzen duen bezala astinduko ez balu.

Bide handia da oraindik egin beharrekoa, ia dena egia esateko, baina ETAk berandu baino lehen emango duen erantzunak hori guztia ahalbideratuko du. Kosta ahala kosta eraikiko den bidea da, nagusiki euskal gizarteak hala nahi duelako eta euskal herritarrek norabide horretan bultzatzen dutelako, gero eta tinkoago gainera. Konponbideari begira, orain arte hauteskundeak beti izan dira traba aukera baino, aurreratzean elkarrizketa eta konponbidea bandera izango dira euskal herritarren aurrean eta, beraz, botoa erakartzeko amu. Bakeak, azkenik, asko du bere alde. ■



JUDIT FERNANDEZ



Jada ez dago aitzakiarik

Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO IRAKASLEA

Benetako demokrazian sinesten dutenek, hemendik aurrera, ez daukate inolako aitzakiarik euren legedia betetzen hasteko. Inflexio puntua izan da Aietekoa. Nazioarteko eragileak eta eurek sortuko duten jarraipen batzordea dira, atzera bueltarik gabeko prozesuan, eman beharreko urratsak bermatuko dituztenak. Mundu osoko hedabideak izan dira eta mundu mailako oihartzun mediatikoa izan du konferentziak; bereziki azpimarratzekoa, Frantziako hedabideetan izan duen oihartzuna.

Alde biei igorri die mandatua nazioarteko bake konferentziak: ETArri ekintzak behin betiko amaitzala eta Frantziari eta Espainiari pausoak eman ditzatela. Bake justua lortzeko balioko duen prozesu integralari ipini zaio lehen harria. Ziklo politiko berrian, ezinbestean, gutariko bakoitzak birkokatu beharko du; alde batean zein bestean.

Euskal Herriko eragile gehienek babesa lortu da. Ipar Euskal Herriko politikariak ez dute kanpo geratu nahi izan, bake prozesuaren konponbidearen eszenifikazioan. Frantziatik ere keinu nabarmena egin da, barne ministro ohiaren presentziarekin, konferentzian inplikazioa adieraziz.

Baina badira aurrean daukaten agertoki berria ikusi nahi ez dutenak ere. PPri eta UPyDri ez zaie nahikoa Lokarrik jarri dien itsumutila. Oraindik hurbil dauden bake prozesuak txalotu zituztenei, metodo bera ez zaie baliagarri euren larruan. Borroka armatuari kontra egiteko, legez kanpoko tresnak erabili dituztenek, boikota erabili dute. Protagonista aktibo izateko aukera baztertu eta protagonista errektibo papera hartu dute. Bake prozesuaren porrota hartu dute helburu hainbestetan bakeaz jardun dutenek.

Patxi Lopez lehendakariak eta bere gobernuak horretarako ere klaserik ez dute erakutsi. Ez aktibo eta ez errektibo: pasibo. Gauzak ondo irtenda ere, eurak kontra ez zeudela garbi gera dadin. Bakea lortuta ere, posizio onean. Lehendakari bategandik zerbait gehiago espero nuen. Eskerrak alderdi sozialistatik Egiturenek maila erakutsi duen; txalotzekoa hori ere. Bakoitzari berea.



INIGO AZKONA



Testua eta kontestua

Xabier Aierdi

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Donostian astelehenean ospatu zen Aieteko ekitaldiko testua irakurrita mendiak sagua erditu duela esan daiteke. Esperantzak handiak direnean frustrazioa handiagoa izaten da, eta horrelakorik egon izan da ekitaldiaren inguruan: tantaka jende gero eta ezagun eta ospetsuagoa zetorrela ikustean, testuak gehiago argitu zezakeela zirudien, eta ez da horrela izan. Egon badago arrazoi nahiko honelako testu bat sakonagoa ezin daitekeela esateko. Egia da; baina, egia da ere, ez digula ezer berririk esan. Honelako adierazpenak entzuten ohituta gaude, eta gehienez, testuari, zer edo zer errekonozitzekotan ikuspegi ezberdinek esan ohi dutena testu labur batean batu izana da.

Besterik da kontestua eta horretan jarri beharko ditugu testuak eman ez dizkigun itxaropenak. Errealitate azeleratu batean gaude, ETA bera, ezker abertzalea ere, urratsak ematera behartuta dago. Hori da kontestuarak erakusten digun aspekturik garrantzitsuenak, txisteetarako garaia amaitu dela, bakoitzak ematen dituen urratsak gainontzekoenekin bilbatuta daudela eta fase honetan nahi den dosifikazioaren zati bat

baino ez dagoela norberaren esku. Kontestuarak erakusten du, halaber, konpromisoak ez direla edonoren aurrean ziurtatu, ezin litekeela hain jende ospetsua txango baterako ekarri eta, alde batetik, Bake Konferentzia gisa aurkeztu ezin bada, bestetik, Bakerako bilkura bada. Bakerako bilkura izango da premiazkoa den erabakia har dezaketenek hartzen badute. Gatazka politikoa eta biolentzia ez direla bat, batez ere biolentzian aritu direnek errekonozitu behar dute, gehientsuenok aspalditik bagenekien eta. Gailur honek gizarte osoa poztu egiten badu, batez ere ezker abertzalea bide politikoetan soilik aritzera konbentzitzen du.

Seguruenik hau idazten denetik irakurtzen denerako gertatuko direnekin, eszenatik politikoa eraldatua egongo da, zenbait aditu eta pertsona informatuari lerro artean uler dakioket eta ETAk baiezkoa emanez azkar erantzungo duela. Horrela izan dadila eta testuko lehen puntua bete dezala. Horrek kontestua berrelikatuko du, eta gero gerokoak.



DANI BLANCO



Trapu zaharrak

Ramon Etxezarreta

PSE-EEKO KIDEA

Lotsa pasatu dut joan den astean, lotsa handia. Urte luzetan bizi izan naiz bizimodu makur lezkutukoa egitera behartua, biharamunik ezagutuko ez nuen beldurrez, nire euskaltasun ukatua nola edo hala itoaz. Lotsa pasatu dut, luzaroan nirea esplikatzerik, ustez saiatu arren, lortu ez dudalako. Lotsa, hori hiru ordutan zehar hiruna minutuz hitz eginez egin zitekeela jakin dudanean.

Pena hartu dut, pena handia, niri ulertu ezin izan didatena nazioarteko izen ospetsuei ulertzeko erraztasuna agertu dutelako, gorbata haientzat lotu dutelako. Ez nau harritu oraindainokoa beren bizitzak eta beren adiskideenak hurkoarenak baino gehiago balio zuela, edo hurkoarenak balio zipitzik ez zuela, uste izan dutenengandik.

Amorrua sentitu dut euskal herritar askoren artean oraindik ez dudalako sentitzen igaro dugun guztiaren

kontzientzia orokorrik. Amorrua dut, nahiz eta krimenetan partu hartu ez duten, gizarte zintzo batek partekatu beharko lukeen lotsak oraindik harrapatu ez dituelako. Amorrua, ikusten dudanean inor, inor asko, inoren izenean bakeak bizitza itzuliko ez dienen izenean, arduragabeki barkatzeko prest agertzen delako.

Poz eman dit jarduera armatuaren behin betiko amaiera eskatu dutelako, ETari berea konpontzeko eta politikatik kanpo gelditzea eskatu diotelako.

Ezinbesteko aurrerapausoa izango zen hau. Ez dakit hain ezinbestekoa zen ezker abertzaleak euskal gizarteari umiliazio hau pasaraztea. Zeremonia guzti hau exijitzea, guztioi “inor ez hil, ez bortxatu” soil bat behar dela erabakitzeke eta beste guztien arauetan, guztientzako arau berdinetan, aritzeko prest dagoela esateko eszenategia prestatzeko.

Agian ari da ordua iristen gutako bakoitzak bere buruaren erantzukizuna izango duena, hori bai ezinbestekoa dela. Nik nire egiten ditut nire esanak eta eginak eta hauen erantzukizun guztiak. Prestaketetan ari naiz memoriaren parentesi tartetetan bizitzen hasteko, kanpoaldeko leihoko kakoan eskegiz neure trapu zaharrak, gorrotoari besarkatu gabeko ardura eta erantzukizuna.



DANI BLANCO



ETAren amaiera

Garbaine Bivrrun Mancisidor

EPAILEA

Euskal Herrian Gatazkaren Konponbidea Sustatzeko Nazioarteko Konferentzian –Lokarrik antolatutako Bake Konferentzian, alegia– hartutako ondorioak ezagutu ditugu eta, uste bezala, ETAren amaiera bidera dezakete. Lorpen handia da ETA gure bizitzatik desagertzea. Denon lorpena: euskal gizartearena, hainbat pertsonena, hainbat talderena, baita ETA denbora luzean zehar babestu dutenena ere. Baina ez da, inolaz ere, ETAren lorpena, are gutxiago Bake Konferentzia hau antolatu izana. ETAK aspaldian nazioarteratu nahi izan du gatazka politikoa –Euskal Herriaren etorkizun politikoa, hain zuzen ere–, baina nazioarteratu den gai bakarra ETAren amaiera izan da.

Nik ez nuen inoiz pentsatu ETAK horrelako tresnari beharko zuenik bere jarduera krudelari amaiera emateko. Horren erraza ikusten nuen nik, teoriarik behintzat, erabaki hori hartzea! Baina, dirudienez, hemen egindako ahalegin guztiak ez dira nahikoak izan ETArentzat. Eta esfortzuak egin dira, noski. Horretan ahaleginu dira ETAren desagerpena eskatu dutenak eta bere krimen guztiak gaitzetsi dituztenak; senitarteak eta lagunak galdu dituztenak; herritarren segurtasuna zaindu nahi izan duten guztiak; kanpotik laguntza ematera etorri zaizkigunak eta, azkenik, ETari bere babes politikoa ukatu dion ezker abertzalea. Denon artean lortu dugu ETAK bere “hausnarketa” egitea; elementu guzti horiek gabe une hau ez zen iritsiko-eta.

Berez, herritar naizen aldetik, hainbeste urtetan desio izan dugun panorama berria posible egin duten guztiei eskertu nahi dizkiet euren ekarpen guztiak.

Pozteko egunak dira gaurkoa eta aurrean ditugunak. Baina baita lana egiteko garaia ere. Gure arteko bizikidetza konpondu eta berreskuratu behar dugu eta errealtateari aurre egin beharko diogu. Azken finean, orain nabarmenagoa egingo zaigu askok pairatu duten sufrimendua eta nabarmenagoa, oraindik ere, etorkizuna eraikitzeke egia, apaltasuna, erantzukizuna eta eskuzabaltasuna guztiz beharrezkoak izango ditugula.

Agian gogorra egingo zaigu ETAren amaierak agerian utziko duen errealtate osoa, baina aurrera egiteko hau izango da abiapuntu sendo bakarra. Hau eta ETAren amaiera bera, noski.



Ainhoa Oiartzabal

«Informazioa ordenan jartzeko kazetaritza egiten dut»

1960ko ekainaren 27an bomba leherketa Donostian, Amarako tren geltokian. Sei lagun zauritu zituen lehergailuak. Hurrengo egunean hil zen haietako bat, Begoña Urroz, 22 hilabeteko haurra, Lasarte-Oriakoa. Espainiako politikari interesatu askoren aho interesatuagoetan “ETAren lehen biktima”. Ikerketa egin eta pekoz gora jarri zituen hitzok Ainhoa Oiartzabal kazetariak. Rikardo Arregi sarietan epaimahaiaren sari berezia jaso zuen haren *Nork hil zuen Begoña Urroz?* erreportaje bikainak.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Epaimahaiaren sari berezia, erreportaje bereziarentzat.

Bai, ez da ohikoa horrelako erreportajeak egitea. Gurean, behintzat. Argitaratzeko datarik ez genuela hasi ginen lanean. Papera betetzeari ez, zer edo zer berri, edo jakin beharreko, idazteari eman genion inportantzia, eta horretan, hari-mutur guztietatik tira egitea. Ezin izan genuen hari-mutur denetatik tira egin, edo ez guk nahi bezainbeste, baina iturri askotatik edan genuen. Pozik nengoen bukatu genuenean. Eta argitaratu zenean ere bai. Gero, saria jasotzean, ginga jarri genion egingdako lanari.

“ETAk hildako lehena”. Omen. Zure erreportajeak besterik erakusten du.

Ez gara lehenak hori esaten, alegia, ez zela ETA izan. Jose Felix Azurmendik horixe idatzi zuen behin *Deian*, iritzi artikuluan. *El Diario Vasco* egunkarian ere beste historialari batek ere hortik jo zuen. *Garan*, Iñaki Egañak ere pare bat erreportaje idatziak zituen. Zer edo zer bazegoen, beraz. Ez ginen hutsetik abiatu. Ez zen gure primizia izan. Martxeloren [Otamendi] ideia izan zen erreportajea idaztea, informazioa biltzea, ETA izan zela diotenen hitzak eta ezetz diotenenak biltzea, haien argudioak aztertzea... Iturrietara jo genuen, iritziak bildu eta kontrastatu. Horixe egin genuen. Adibidez, Jose Antonio Pagolak, Ernest Lluchek, honek eta hark esandakoak bildu, ETA izan zela, ez zela izan, DRIL izan zela... Iturrietara jotzen

saiatu ginen. DRILeko buruzagietara iristea zailago izan zen, adibidez.

Ordu arteko informazioa ordenatu zenuen lehenengo...

Eta egiletzaren inguruko argudioak aztertu. Eta ustekabea, ETA izan zelako konstatazio-rik ez agertzea inon. Gezur batean bizi izan gara. Bai, Espainiako diputatuen kongresuak esana, baina, gainerakoan, ez dago Espainiako poliziaren txostenik, ez Herrizaingo sailarenik, ETA izan zela erakusten duenik.

Zenbat denbora eman zenuen erreportaje honetarako lanean? Otsailean argitaratu zen.

Azaroan hasi ginen. Biktimen eguna izan zen Gasteizko legebiltzarrean. Ordurako, geure buruari galdezka ari ginen, Begoña Urrozen izena agertzen ote zen, eta laster ginen Amaran leherketa izan zen garaian zein ote zebil-

Nortasun agiria

Ainhoa Oiartzabal (Zizurkil, Gipuzkoa, 1975). Kazetaritza ikasketak egina. Andoaingo *Aiurri* herri-aldizkarian hasi zen kolaboratzen, ikasten ari zen bitartean. 1998an, bekadun ekin zion *Euskaldunon Egunkarian*, eta *Berrian* da harrezkero. Kazetaren *Igandea* gehigarrian ari da lanean, ale ederrak eskainiz irakurleari, *Nork hil zuen Begoña Urroz?* adibide.





tzan ETAn sartuta, zein ziren DRILen... iker-tzen hasita. Bi hilabete eta erdiko lana izan zen, eta tartean Martxeloren laguntza izan nuen, hainbat elkarrizketa lortzerik ez nuen izango bestela, eta erreportajea hankamotz aterako zen. Xavier Montanya kazetari katalanak ere asko lagundu zidan. Liburua egina du DRILi buruz, eta deitu nionean, ez zuen zalantzarik ibili. Amarako leherketa ere DRILena zela esan zidan, egun hartan gertatu ziren gainerakoak bezala. Montanyak DRILeko buruzagiaren seme Victor Veloren bitartez jaso zuen komunikatua, telefonoz. Dokumentua paperean falta, ordea! Montanyak esku-zabal lagundu zidan. Eta, esaterako, *Le Monde* egunkariko hemerroteka eskuratu zidan. Larunbat batez, arratsaldeko zazpietan, deia nire sakelakoan. Xavier Montanya zen, Parisetik: “Hemen daukat!”. *Le Monde*ren hemerroteka, alegia. Bestalde, Montanyak DRILeko kideak elkarrizketatuak zituen, baina inoiz ez zioten esan beraiek jarri zutenik lehergailu hura Donostian. DRILEk agiria eman zuen argitara atentatuaren inguruan, Venezuelako prentsan, eta ahaleginak eta bi eginda ere, ez genuen agiri hura eskuratzerik lortu. Horixe dugu pena. Izan ere, agiri hartan DRILEk bere gain hartu zituen egun haietan [ekainaren 26, 27 eta 29an] Espainiako Estatuan gertatu ziren dozena erdi leherketak. Tartean, Donostiako biak, Amarako tren geltokian ez ezik, Norteko geltokian ere beste bomba bat lehertu baitzen. Eta beste bat Bilbon, Atxurikoan.

Amarako atentatuaren inguruko datu interesgarri eta harrigarrietan, bat guztiz bitxia: zaurituen artean, 15 urteko mutikoa, Valeriano Bakaikoa, EHU-n Ekonomia Aplikatuko katedraduna, Baleren!

Hemerroteka aztertzen ari ginela azaldu zen haren izena, Valeriano Bakaikoa Azurmendi.

Emakume ahotsa

“Emakumeen ahotsaren bila jardun nahiko nuke. Emakume asko gelditu da isilik, eta zer kontatua badutela uste dut. Ez dugu haien ahotsik ezkutatu, baina era berean, ez diegu askorik galdetu. Hor jarri zait gogoia. Emakumezkoak dira aintzat hartzeko moduko ibilaldia egin dutenak gizartean. Jakin-minez nago”.

“Hau Baleren da!”, esan zuen Martxelok. Eta hala izan! Balerenek, garai hartan entzun zuena kontatu zigun, eta nola zeharo harritu zen gerora zabaldu zen bertsioa entzunda, alegia, ETAREN lehena izan zela. Horrela, handik eta hemendik osatu genuen erreportajea.

Hari-mutur asko, iturriak hainbat, lekukoak... Badira, hala ere, iritsi ezin izan dituzuen pertsonak, huts egin dizuetenak.

Bai, ezezkoa eman ziguten, bai. 60ko hamarkadan ETAn zebiltzanak, ETA sortu zutenak, eta gerora harekiko oso kritiko izan direnak, gogor gaitzetsi dutenak. Haien iritzia bildu nahi genuen, ETAREKIO beraien jarrera gorabehera, gertakari hura argitu nahi genuelako. Besterik ez bada ere, Mikel Azurmendi-ekin hitz egin ahal izan genuen, eta oso eskertuta gaude hitz egin zigulako. Garai hartan ez zen ETAKoa, geroago sartu zen, baina garbi esan zigun behin ere ez zuela entzun ETA izan zenik atentatu hura egin zuena, eta sinetsi ere ez. Beste batzuegana ere jo genuen, baina ez zuten ezer esan nahi izan, edo ez zekiten. Haien hitzek are sinesgarriago egingo zuten ETA ez zela izan dioen bertsioa, baina horretan.

Lasarte-Oriako Udalak ETAREN biktimez egindako liburuan Begoña Urrozen izena dakar, erreportajea bertan irakurri genuenez. Familiaren hitzen zain geratu ginen, ez zenuten haiengana jo...

Ibili ginen, deitu, ez deitu, baina ezetz erabaki genuen, aurretik ere bertsioa emana zuelako Madrileko *El País* egunkarian. ETA izan zela dio familiarik. “Ez gara sokatiran hasiko”, geure buruari esan, eta familia bakean uztea erabaki genuen. Saiatu ere ez ginen egin. Sinesten duen bertsioa sinesten du familiarik,



eta nahi duena sinesteko eskubidea du. Guk, politikarien, agintarien eta gizarte ardura duten gainerakoen bertsioa jaso nahi genuen.

Gogo onez irakurri zuen erreportajea hainbat irakurlek, baina harriturik ere badago bat baino gehiago. Zarata mediatiko handiagoa du Baionako Avyron errugbi taldeak egindako entseguak ETaren lehenengo atentatua ETarena ez zela izan erakusten duen saioak baino.

Pena hori geratzen zaigu, bai. Saria jaso nuen ere esan nuen, ez ahal zen gaizki interpretatuko. Badirudi hau dena euskal irakurleen artean geratzen dela, ez dela zabaltzen. Ez gaituzte irakurtzen, eta hori da arazoa. Okerrago, ez gaituzte aintzat hartzen, beharbada irakurtzen gaituzte-eta. Horrek bigarren mailako kazetari, eta are, bigarren mailako hiritar sentiarazten zaitu, neurri batean. Erreportajeak ez du ondoriorik ekarri, hori da egia. Urteurrena etorri zenean, ekainaren 27a, eta Terrorismoaren Biktimen Eguna Madrilén, zain egon nintzen, batean edo bestean zer edo zer agertuko, baina ezer askorik ez. Bigarren urtea zen eguna ospatzen zutena,

Ikertu

“Buertaka nabil, ez dakit hurrena zer ikertu. Begoña Urroz, Yoyes... Oraintxe ez dut gustuko gai jakin bat, aztertuko nukeena. Dena dela, jabetzen naiz garai halako bat bukatzera datorrela. Beharbada, horren kronika egiten hasteko sasoia iritsi da. Sentitu, ikusi eta esplikatze beharra...”.

baina ez zuen iazko pisurik izan. Beraz, ez dakit zer balio ematen dioten egunari, biktimari... Nire lanari dagokionez, batere baliorik ez diotela ematen iruditu zitzaidan. Politika jokoan ari dira, besterik ez, ez dute aintzat hartzen gure lana. Ez da lehenengo aldiz konstatatu duguna.

Nork hil zuen Begoña Urroz? erreportajea izango da ikerketa-kazetaritzaren adibide ederra, ala?

Ez dakit ikerketa den ere. Informazioa ordenan jartzeko kazetaritza egin dudala nahiago dut esan. Ez dakit erreportajea nola definitu ere. Puzzlea daukat nik gogoan. Piezak osatu, eta bata besteari lotzen saiatu. Beste batzuek ere pieza horiek erabiliko zituzten, baina osatu zuten puzzleak bestelako itxura zuen, diferentea zen... tranpa eginda! Batean, DRIL aipatu ez, *El País*ekok; beste batean, gauzak oker ordenatu... Nire lana piezak zuzen ordenatzea izan da. Ikertu? Ez dakit gauza berririk ekarri dudana auzira. Tira, DRI-Lekoak plazara ekartzea, hori bai, aurretik inork ez zuen-eta lan hori egin. Ikerketa izatekotan, poliziarri galdetzea! Ez dakit, bada. Edo, beharbada, horixe da ikerketa-kazetaritza. Piezen ordena izan da, hala ere, nire lehenetsuna, horretan saiatu naiz.

Urtean gisa honetako zenbat lan egin litezke?

Galdera ona! Esan nion Martxelori: “Hau, eta gehiago ez!” Kar, kar, kar. Baina, atsedean hartu eta laster da harra zure barruan: “Beharbada...”. Yoyesen hilketaren urteurrenaren inguruan ere erreportajea egin nuen. Ez zen ikerketa izan, baina piezak ordenatzea, berriz. Gaia etengabe ibiltzea eskatu zidan lan horrek. Ez zen izan besterik gabe papera betetzea, betelana, ez. Hilketa horren barruan sartzeko ahalegina egin nuen, zer gertatu zen esplikatzen saiatzeko. Horrelako zenbat lan egin litezkeen urtean? Askorik ez. Denbora eskaini behar zaio gaiari, eta lanean segitu, zeure buruari eutsiz, gertatzen baita

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



AZKEN HITZA

Buruko mina

“Saria jaso nuenean esan nuen *Nork hil zuen Begoña Urroz?* erreportajea idazteak burukomin dezente ekarri zizkidala. Zenbait jenderen hitzak nahi eta: ‘Ez, ez dut hitz egin nahi’. Jendeak nahi ez duenean, aldapa gora egiten zait insistitzea. Ateak irekitzen behin eta berriz jardun beharra, buruko mina!”.

zer edo zer “deskubritu” eta aztoratzea, eta lehenbailehen argitaratu nahi izatea... Ez. Gaiari lotu, hartu, utzi... egin beharra dago, nahiz eta horrek desgastea ere badakarren. Batzuetan, zer kontatzen ari zaren ere ez dakizu azkenerako. Horrelako lanak, urtean behin, bitan, askoz gehiagorik ez.

Ordenatu

“Idazle izateko irakurle izan behar da, eta kazetari izateko, berdin, irakurri beharra dago, denetatik irakurri. Baita txarretik ere, gaizki idatzitakotik. Hortik ere ikasten da. ‘Horrela bai, horrela ez. Beste era batera egin beharko litzateke’. Izen-deituradun jende asko izan dut egunkarian bertan eredu: Andres Gostin, Jon Eskisabel, Imanol Murua, Lorea Agirre, Amagoia Iban... Horiekin ikasi dut. Horiek baino gaztexeagoa naiz, buru izan ditut hainbat sailetan, eta haiengandik ikasi dut, egunkarian bertan, irakurtzen, eta zer edo zer jakingari esateko ahaleginean beti”.

Ikerketa lanok bakarka egin beharrekoak dira ala talde-lana dituzu?

Nik nahiago dut bakarka egin, honekin eta harekin kontrastatzeari uko egin gabe. Dena dela, bildutako informazioa antolatzeke, eta idazteko –azken finean, idaztea da gure lana–, hobe da bakarrik, tonua ere batera etorriko da, estilo bakar bat agertuko da. Baina ona da ondoan baten bat izatea, oinak lurrean jartzten lagunduko dizuna, galtzen zarenean lagunduko dizuna, segitzeko indarra emango dizuna...

Kazetaritza ikasketak eginak dituzu unibertsitatean. Han erakutsi zizuten gauzak horrela idazten, antolatzen?

Fakultatean ikasi? Gehiena hemen ikasi dut, *Euskaldunon Egunkarian* lehen, eta *Berrian* orain. Lanean, eta irakurtzen. Andres Gostin izan dugu hemen irakasle. Orain unibertsitatean da, han ere irakasle. Hark erakutsi zigun sinplekeria: “Irakurri nahiko zenukeena idatzi behar duzu”, zioen. Irakurle bazina, irakurri nahiko zenukeena. “Jar zaitez irakurlearen larruan, izan zaitez zeu irakurlea”, kontua ez da zer idatzi behar den beserentzat, alegia irakurlearentzat, norberak irakurri nahiko lukeen haren atzetik bila ibiltzea baizik. Hori xe da kazetaria, eta jakin-mina izatea, eta kritiko izatea, pentsatzea, puzzlea osatzea... ■





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com



TTAKUN (H)ERRENKA

Sarrionandiaren (literaturaren) alde

A

sko idatzi da dagoeneko Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* liburari emandako saia-

kera Euskadi Sariaren karietara. Neurrigabekeriak ugariak izan dira, baina denetan asaldagarriena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren jarrera iruditu zait. Izan ere, bietako bat, edo Sarrionandiaren obra eta ibilbide intelektualaren ezjakin erabatekoak dira bertako arduradunak, edo jakitun izanik ere, politikakerien ondorioz fedetxarrez jokatu dute. Ez dakit zein den bi aukeretan arbuigarriena.

Sarrionandiak saria jasotzeko eskubidea duela defendatu dutenek antzeko bideetatik jo dute: gaizkile krudelenak ere literatura ona egin dezakeela, sariketaren oinarriak betez gero dirua eskuratzeko eskubide guztia duela, eta abar. Horiek guztiak oso ongi daude, eta arrazoi guztia dute, baina ia inori ez diot entzun Sarrionandiaren obrak edo pentsamenduaz ezer.

Kontua baita kalapita hau guztia, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren oharraren arabera, Sarrionandia “bere militantziaz sekula damutu ez den pertsona bat” delako sortu dela. Jakina da damuaren diskurtso hau zeinen tranpati eta makurra den. Ez dakit, esaterako, egungo Jaurlaritzaren erreferente intelektual nagusienetakoak diren Mario Onaindia eta Kepa Aulestia damutu ziren bere garaian ETAn militatu izateagatik, baina garbi dudana zera da, beren idazkiak ez direla Sarrionandiaren idazkien zangosagarrera ere iristen indarkeria eta autoritarismoaren kritikaren sakontasun intelektual eta soslai demokratikoari dagokionean. Izatez, bere obra taxuz irakurtzea besterik ez dago, *Lagun izoztua* laudatua abilezia minimo batekin irakurtzea, bere poesia ugaria irakurtzea, zer esanik ez bere saiakera liburuak, ohartzeko nekez aurkitu

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

daitekeela gure inguruetan Sarrionandia bezalako pentsalari aurrerazale, kritiko eta demokratikorik –demraziaren zentzu original eta zintzoenean–. Bada garaia, denon artean sortu dugun Sarrionandiaren gudari irudi mitikoa –terrorista batzuentzat, heroia beste zenbaitentzat– hankaz gora ipintzeko;

Sarrionandia ping-pongeko pilota bat bailitzan erabiltzeari uzteko, Sarrionandiaren irudia duten poltsak zakarretara botatzeko. Eta bere liburuak irakurtzeko. Zorionez, berak idatzitakoak baititu bere alde; zoritxarrez, inor gutxiri interesatzen zaizkio eta inor gutxi egiten die jaramon.

Sarrionandiaren liburuetatik landa, hari egindako elkarrizketak irakurtzen ahal dira halaber. Pentsa, euskal politikaren gainean zientzia fikzioa egiten espezialista den Jose Luis Barbería kazetariak berak ere hartu du lur iurretarrak *Hausnart* aldizkariari egindako adierazpen “harrigarriak” irakurri ostein. Ez da salbuespena, *Les Inrockuptibles*en ere gauza esanguratsu askoak esan ditu berrikitan. “Armak, izatez, hondamendia iruditzen zaizkit (...) teknika autoritarioen barnean daude, botere-tresnak dira”. Halakoak esaten dituen norbait terrorista bihozgabe eta amoral gisa aurkeztea iritzi publikoaren aurrean difamazio kanpaina bidegabea antolatzea da. Baina

oraindik larriagoa dena zera da, kanpaina lotsagarri hori botere publikoetatik abiatua izatea, euskal kulturaz arduratu eta bertako kideak zaintzea egokitu zaion departamentutik bertatik.

Presio politikoaren ondorioz hau guztia egitera behartu badituzte duintasunez dimititzea zuten aurrez; esan eta idatzi dituztenak benetan uste badituzte arazo larria dute, euskal idazle goreneta baten obraren ignorante absolutuak direla erakusten dute-eta. ■



Bada garaia, denon artean sortu dugun Sarrionandiaren gudari irudi mitikoa –terrorista batzuentzat, heroia beste zenbaitentzat– hankaz gora ipintzeko; Sarrionandia ping-pongeko pilota bat bailitzan erabiltzeari uzteko



Xabier Etxaniz Erle

IRAKASLEA

Irakaskuntzaren kontra

Duela gutxi egunkari batzuetan argitaraturiko inkesta baten arabera politikariena da Espainiako Estatuaren konfiantza gutxien ematen duen erakundea edo giza taldea.

Albiste kezkarria beharko luke, baina ez dirudi inor harritu denik, ezta ezer aldatuko duenik. Ematen du olio eta ura bezala bizi garela, ondoan baina bi mundu ezberdinetan, eta baten eta bestearen interesak eta beharrak oso ezberdinak direla.

Espainiako politikarien aldetik azken garaian jasotzen ari garen mezuen artean bada bat guztiz kezkatzen nauena, irakaskuntzaren ingurukoa. Urteak, hamarkadak, daramatzagu entzuten irakaskuntza guztiz beharrezkoa dela gizarteak aurrera egin dezan; aurrera ideietan –gizarte demokratikoagoa, parte-hartzaileagoa eta heziagoa–, eta aurrera bizi kalitatean eta garapen ekonomikoan. Irakaskuntzaren bidez lortuko omen dugu pobrezia (ekonomikoa eta kulturala) murriztea, bizi baldintzak hobetzea eta gizon-emakumeen arteko ezberdintasun ekonomiko eta sozialak txikitzen joatea.

Finlandia izan dugu, eta Europa iparraldeko herrialdeak, adibide irakaskuntzaren garapen horretan. Zerbitzu sozialak oso garatuak daude, laguntzak dituzte umeak izateko (eta



ALEX LARRETXI

izan ondoren), irakaskuntza sistema oso onartuta dago, kalitatezkoa eta familiarik hurbil. Nahiko zaila da irakasle izatea, eta pertsona horiek gizartearen onarpen handia dute –beren seme-alaben prestakuntzaren arduradunak dira–.

Urtetan, diot, horixe esan digute, irakaskuntza oso garrantzitsua dela. Eskolarizazioan gastaturiko dirua ez dela gastua, inbertsioa baizik; gizarte gero eta heziago batean bizi kalitatea handiagoa dela.

Eta horren guztiaren ondoan, orain, etengabe eta inolako disimulurik gabe irakaskuntzaren kontrako eraso bortitza datorkigu. Irakasleen lana mespretxatuz, gizarte mailan gero eta prestigio gutxiago duen sektore bati lagundu beharrean, haren kontrako irainak entzuten ari gara politikari batzuen aldetik. Ikaragarria da, eta, nire ustez, interpretazio bakarra du: gizartearen demokratizazioaren kontrako asmoa, besterik ez.

Ez zaie interesatzen jendeak pentsatzea, klase ezberdintasunak murriztea, beheko mailako bizi baldintzak hobetzea. Ez dute, hainbestetan aldarrikatzen duten demokrazian sinesten...

Eta hala ere, herritarren botoa izango dute horrelako politikak bultzatzen dituztenak Espainian eta baita Euskal Herrian ere. ■



«
Irakasleen lana mespretxatuz,
gizarte mailan gero eta
prestigio gutxiago duen sektore
bati lagundu beharrean haren
kontrako irainak entzuten ari
gara politikari batzuen aldetik
»

TXANDAN

Amatiño



Hizkuntza kontuez ari dela hausnarrean (*Euskara batua-
ren ajeak*; 1998- 207. orr.),
Ibon Sarasolak zera dio beste
hainbat arrazoibideren

artean: “Estatu bat ez garenez eta izan ez garenez gero”. Estatu bat ez garena gauza jakina da; izan ez garena ez daki, ordea, zenbaitek. Ez baleki bezala hitz egiten du, behintzat.

Gure bazterretako hainbat arazo ezjakintasun honetatik etorri izan dira. Zenbaiti entzunez gero badirudi Euskal Herria, Euskadi edo dena delakoa betidanik izan zela estatua Francoren diktadura arte;

Zein onak garen

edo, luze jota, XIX. mendeko karlistadak arte. Baina ez da egia. Ez aurrena eta ez hurrena ere.

Edonork du nahi duena aldarrikatzeko eskubidea, baita aldarriok noizbait egia bihur daitezen ahalegintzekoa ere. Baina arazoa ez da zer kendu, ostu, lapurtu edo ebatsi diguten. Zer lortzeko, erdiesteko eta berreskuratzeko gauza garen baino. Arazoa ez da besteak zein gaizto portatzen diren gurekin, guk zein onak garen frogatzeko lain indarrik ba ote dugun baino.

Hizkuntza kontuetan ere, jakina. ■



Gorka Moreno Marquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

“Mundulogia” ulertzeko

S

oziolegian kontuan hartu beharreko hainbat baldintza daude gizarte-errealitatearen azterketa eta ulermen egokia gauzatzeko. Baldintza hauek hasieratik kontuan

hartu behar dira –beti izaten dugu eta interpretazio desegokiak eta okerrak egiteko parada; askotan gertatu legez–. Kasu honetan nik hiru baino ez ditut aipatuko:

1. Nire ideologia, nire nahiak edota errealitatea nahastea. Maizegi gertatzen da, eta sarritan soziologoak ez du lortzen begietatik bere desioak kentzea. Hortaz, betaurreko gaizki fokatuak erabili ostean zer gertatzen den eta zer gertatzea nahiko lukeen askotan ez dira ondo bereizten. Adibide bat aipatzearen: zenbatetan esan dute soziologoek eta antzeko askok kapitalismoa bukatzeareta hiltzeareta dagoela? Marxengandik abiatuta gaur egun arte, hamaika lagunek. Niri akaso kapitalismoa desagertzea gustatuko litzaidake, ez dudana hain garbi da hori ikusteko kapaz izango naizen.

2. Gizarte errealitate zabala eta nire errealitate mugatua nahastea. Egia da batzuetan *etxeko soziologia* egitea ona, positiboa eta beharrezkoa izaten dela. Baina honen mugak argi eduki behar dira lehenengo momentutik eta



INGO AZKONA

gure ingurune hertsia errealitateari buruzko informazioa ematen badigu ere, honen baldintzak ere kontuan hartu behar dira. Gure herrian adibide anitz daukagu, eta gehiago ez dut esango...

3. Errealitatea ulertzeko faktore aske eta menpekoen arteko nahastearen ondoren gertaera baten interpretazio okerra egitea. Hau gertatzen da ondorio bat aztertze zergatien artean eraginik ez duen faktore bat sartzen denean. Halaber, oilarrak egunsentian egunero kanta egiten duenez eta egunsentian ere egunero eguzkia ateratzen denez, eguzkia ateratzearen zergatia oilarra da. Hortaz, zaindu ditzagun ondo munduko oilar guztiak bestela akabo eguzkia.

Honaino artikulua handinahi hau, eta agian, aspergarria ere. Orain soziologia jartzen duen tokian jarri *mundulogia*, unibertitate-eremua ahaztu, hasi taberna edo kalean pentsatzen –gizarte-errealitatea alboratu– eta familia eta gertuko harremanen gainean argia ipini.

Akaso artikulua interesgarriagoa izango da. Zenbat aldiz ez ditugu akats hauek guk geuk egin, gure ingurukoekin eta gure eguneroko bizitzan? ■



Zenbatetan esan dute
soziologoek eta antzeko
askok kapitalismoa bukatzeareta
hiltzeareta dagoela?



Marxengandik gaur egun
arte, hamaika lagunek

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Abiatu naiz gaur ere. Usaian bezala, tabernariak hiru erdal egunkari zituen gu bezalakoen erakargarri. Informazio orokorreko biak libre zeuden, kiroletakoa, barka Real Madril futbolekoa esan nahi nuen, okupatuta. Libre zeudenetik bat hartu dut, eta, *Sarriren* argazki izoztua zekarren kultura sailaren buru. Ez zuen ezer berezirik emateko, eta zekarrenak agentziako berrien itxura zuen. Mostadorearen beste puntan beste egunkariaz bi gure moduko adinduak ari ziren kalakan. Bazirudien batek zerbait bazekiela, Aznarren garaian Espainiak ere saritua zuela delako iurretari hori, eta orduan sosak ere

Ohiko ostatura

eman zizkiotela arazorik gabe. Besteak ez zion onartzen, gezurtzat jotzen zuen. Ezin litekeela PPko agintepean holakorik gertatu, sozialistak bere tranpak ezkutatzeko erabilitako jukutriak zirela horiek. Elkarriz mokoka ari ziren ez zekitenaz. Eta garai batean ETAKoekin gertatzen zen bezalaxe, auskalotzen jarraitu zuten batek hortaz omen zekien bere ezagun bati deitu zion arte. Egia berdaderoa. PSOE gogorragoa zen ETAKo terroristekin PP baino. Espainia defendatzen bortitzagoa. Holako eragina du euskal literaturak erdal mundu horretan. Orain behintzat badakite badagoela. Aurreratzen goaz. ■



BERTSO BERRIAK

Agin Rezola

Dukan dietari jarriak



ALBERTO ELOSEGI/XDZ

I

“Flakatu ein haiz” eta antzeko ez dakit zenbat lausengu entzun nahiean ibiltzen gera kiluak kendu ta kendu. Dieta baten truke askok egiten dute burua haizez gizendu, mende hontako jainko berriak *Dukan* izena omen du.

II

Gari artian gosiak egon biharrekua da hau (e)re: baxoerdi bat, pastel txiki bat... zenbat tentazio daude? Nahiz ta saldu elkarri eta askotan jarri dietik onenaren pare, nere bizitza ez det ulertzen pekatu txikirik gabe.

III

Lehendabiziko hiru edo bost egun proteina hutsekin, fase gehiago ere badaude baino ezin da huts egin. Zenbait mutil ta neska sumatu det galdezka “honek zer dik” ta “hark zer din?” Goserik ez da pasako baino inbiria berdin-berdin.

IV

Gozo muttur bat ezin probatu eta alkohol lehortia, maiz osasuntsu egon asmotan galdu daiteke nortia. Legatza eta xerra janaz ez da ederra kiluak ezin botia, baino seguru al gaude zer dan osasuntsu egotia?

V

Batzuen auto-sakrifizio bestien autoengaino, *Dukanek* argi ikusten duna Aginentzat dago laino, oreka baita giltza ta gu bila gabiltza: noiz arte eta noraino? Nahiago ditut sei kilo sobran bizi poza faltan baino.

VI

Suposizioz hitz egiten det ez naiz eta medikua, baino ikusi deten apurra ez det izan begikua. Nere dieta ordia ez da askoz hobia, izan arren betikua: merkuriodun arraia eta tomate transgenikua.



DOINUA: Iparragirre abila dela.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Zinema

Fellini,
gezurraren magoa

Joan da 6 mila milioi beste instalazio bikaina, eta Felliniren unibertsoak hartu du bere lekua Donostiako San Telmo Museo berrituan. 400 irudiren bidez, Riminiko maestro handiaren lana eta garaia irudikatzeko aukera ematen digu *Fellini: ilusioen zirkua* erakusketak. Zale direnentzat, ezin galduzko hitzordua. Zaletu gabeek ere, ez dute deus galtzekorik; muxu-truk da zirkurako sarrera.


ION OLANO CARLOS

IRUDIAK ahalmen hori du. Erakusten duena baino gehiago iradoki, eta irudimena piztekoa. Edo, bestela esanda, irudimenaren bidez baino ezin da irudikatu mundua, bizitzaren ilusioa. Donostiako San Telmo Museoa dauden chunka irudi felliniarrak ikusi eta berrikusi ondoren, dozena batzuk gelditu dira irudimenean taupaka. Bada zuri-beltzeko argazki bat, bi mutil gazte erakusten dituen,

Erromako kaleetan ramegante, pozaren pozez. Komikietan eta fotonobeletan bezala, esaldi bat dauka bunbuiloan idatzita: *“Domani iniziamo la conquista del mondo”* (Bihar hasiko dugu munduaren konkista). Federico Fellini da gazte horietako bat, Rimini herritik Erroma hirira iritsi berria, mundu gosez.

Norbaitek galdetu zuen behin: “Nor da Fellini?”. Eta beste norbaitek eman, akaso





Fellinik berak, erantzun biribila: “Mutiko bat, mutiko izan dena desagertu arte. Eta neska-mutil guztiak bezala, etengabe harritu izan dena. Ze, horixe da artistari dagokion ezaugarri nagusia: lilura. Norbaitek hirurogei, hirurogeita hamar urtetan liluratzeko gaitasuna mantentzen badu, aparteko bizitzetara iritsiko da”.

Bada, aparteko bizitza horien froga ugari aurki daitezke *Ilusioen zirkua*-n. Izenburuko bi hitz horiek, hain zuzen, mundu felliniarreko bi giltza nagusi dira: ilusioa, bere zentzurik zabalenean, zinea bera ilusio optikoa den neurrian, eta bereziki, ametsen munduarekiko duen lotura estuagatik; zirkua, berriz, ikuskizun ikusgarria delako, batzuetan miresgarri, tarteka dekadente, bestetan grotesko, baina beti harrigarri.

Felliniren obsesioak ezagutuko ditu bisitariak: emakumeekiko lilura, herri kulturarekiko atxikimendua, elementu biografikoen erabilera...

kopuru handiegia biltzen du, aldi bakar batean irensteko.

Ilusioen zirkua erakusketak Felliniren obsesioen, iturrien eta eraldaketen berrikuspen orokorra egiten du, 400 irudi finko eta animatuen bidez. Horien artean daude aldizkariak, argazkiak, kartelak eta elkarrizketak. Hala, bisitariari mundu oso bat irudikatzen aukera ematen dio: herri kulturarenganako atxikimendua (karikaturak, garaiko egunkari eta aldizkari irudidunak, komikiak, telebista eta publizitatea), lan-prozesua (gidoilari-jarduera, jantzien eta dekoratuen aukeraketa, aktoreen zuzendaritza eta zuzendaritza zinematografikoa), emakumeenganako lilura (Anita Ekberg, Giulietta Masina, eta abar), elementu biografikoen erabilera eta bere *alter egoa*, Marcello Mastroianni.

Mendebaldeko gizarte zilborkoi honetan, “amets” hitza aspirazioekin lotzen dugu maiz, norberaren bizitzari eman nahi zaion zentzuarekin. Baina Fellinirentzat, lo zein esna egiten diren amets horiek izan dira lanerako materialik, esan dezagun, puruenak. Joxe Ripiauren kantak zioen moduan, “ametsak forjatzen diren materialarekin eginda dago” Felliniren zinema. Iturri askotatik edaten zuen bere irudimena, eta nahieran eraldatu ondoren, iturrietara itzultzen zituen askotariko urak.

Zirku ibiltaria

“Fellini sortzaile paregabea izan zen. 40 urte baino gehiagotan grina, harridura, umorea eta samurtasuna uztartu zituen, irudimenez eta bizitzaz betetako lanetan”. Hala idatzi du Sam Stourdéz-k, erakusketako komisarioak, sarreran irakur daitekeen testuan. La Caixa-ko Gizarte Ekintzak finantzatu du *Ilusioen zirkua*, Parisko NBC Photographie-rekin elkarlanean antolatua eta produzitua. Zirku ibiltarien antzera, zenbait hiri bisitatu ditu dagoeneko: Bartzelona, Madril eta Mallorcako Palma. Azaroaren 13ra arte izango da Donostian zabalik, eta merezi du behin baino gehiagotan bisitatzea. Izan ere, material

Felliniren biofilmografia laburtua

DONE Sebastian egunez jaio zen Federico Fellini, 1920ko urtarrilaren 20an. Hezkuntza faxistan hezia, 17 urterekin hasi zen lehenengo karikaturak marrazten. Bi urte geroago pasa zen R txikitik R handira, hots, Rimini herritik Roma hirira. Orduan hasi zen umorezko lehen binetak argitaratzen. Baina lan-eskua ez zuen marrazteko soilik erabiltzen, idatzi ere idazten zuen, barietate antzerkirako eta irratirako sketchak, esate baterako. Kasualitatez-edo, zineman ere kolaboratzen hasi zen, gidoietan-eta parte hartzen, baita aktore gisa ere. Roberto Rosselliniarekin hainbat gidoietan aritu zen elkarlanean, *Roma, città aperta* filman, besteren artean.

1950eko hamarkadan, plisti-plasta ibiltzeari utzi, eta bete-betean murgildu zen zinema munduan. Lehenik Alberto Lattuadaarekin batera, eta ondoren bakarrik, zuzendariarekin aulkian eseri zen Federico gaztea. *Lo sceicco bianco* (Xeke zuria) filmaren harrera hotzak ez zuten aulki horretatik mugiarazi. Kontrara, tinko eutsi zien ilusioei, eta apurka, ereindako lanaren fruituak iristen hasi ziren: *I vitelloni* (Alferrontziak) eta bereziki

La Strada (Kalea) filmekin ospea eta sona lortu zituen, baita Akademia estatubatuarreko Oscar sari bat ere. Lehenengo hura ez zen bakarra izango, izan ere, arrakastarik eta lilurarik handienak falta ziren.

Hurrengo filmak, *Il bidone* (Iruzurra) deiturikoak, hotzepel utzi zituen kritikari eta zaleak. Harrera hobea izan zuen *Le notti di Cabiria* (Cabiriaren gauak) lanak, baita bigarren Oscar saria jaso ere. Alabaina, inork espero ez zuen lehergailua zeukan Fellinik esku artean: *La Dolce Vita* (Bizitza ona, gozoa). Fontana di Trevi-ko ikono famatuaz gain, film horri zor diogu paparazzo etiketa, besteak beste. Arrakastaren aparretan zegoelarik, modari muzin egin eta kontaketa deskonposatu zuen *8 1/2* film bikainean. Esperimentazioan sakontzen jarraitu zuen hurrengo hiru filmetan: *Giulietta degli Spiriti* (1965), *Fellini Satiricon* (1969) eta *Roma* (1971). Hautzaroko oroitzapenak hartu eta maisuki eraldatu zituen *Amarcord* (Oroitzen dut) filmean. Hura izan zen mundu mailan izan zuen azken arrakasta handia. Ordurako ez zegoen ukatzerik Fellini historiako zinemagile handienen artean zegoela.

Azken horren irudi bitxi bat ikus daiteke erakusketan, Fellini hainbeste liluratzeko Mandrake magoz jantzita. Hain zuzen ere, mago baten ikuskizuna bezalakoa da Felliniren lana: ikusleak badaki magia ez dela existitzen, ikuskizuna trikimailuz josita dagoela, baina hain ondo landua dago ilusio optikoa, azkene-rako zalantza egin baitezake ikusleak: “kontxo, eta magia existituko balitz?”. Erakusketan magoaren trikimailuak ez dituzte erakusten (magia bera bezain misterioitsuak baitira), baina erabiltzen zuen material ugari ikusteko eta irudikatze aukera egon badago. Hartara, Felliniren zinea ezagutzen ez duenak imajina dezake nolakoa izan daitekeen *dottore*-aren lana, eta ezagutzen duenak, irudimenari beste bira batzuk eman, inoiz ez baitago soberan.

Irudietan oinarritutako erakusketa izanagatik, badago halaber zer irakurri. Esate baterako, Felliniren jarrera ezin argiago erakusten duen hurrengo esaldia: “Nik ez dakit gauzei era axolagabea begiratzen, kameraren bitartez, adibidez (...) Gauzen erdian egon behar dut. Denez dena jakin behar dut, inguratzen nauen ororekin amodioa egin behar dut”. Grina zen, hortaz, bere sorkuntza bultzatzen zuena. Fellinik ez zuen ikus-entzunezko formakuntza akademikorik, baina *il maestro* deitzen zioten, *il dottore*. Izan ere, irudiaren eta irudimenaren mekanismoak inork baino hobeto menperatzen zituen.

Nahita eraldatutako egia baldin bada gezurra, eta egia bera gezurra bada, orduan benetakoa magoa izan zen Fellini: gezurraren

magoa. Aditu batzuek diote “fikzio eta errealtatearen artean jolas” egiten zuela, baina hori baino gehiago, esan liteke Fellinirentzat gauza bera zirela biak, “errealitate” deritzogun hori ere eraldatua den neurrian. Zalantzarik gabe, zinemaren eraldatzaile eta berritzaile nagusietariko bat izan zen. Beharbada, ez zuelako inolako korronterik jarraitzen, ez baziren bere subkontzientekoak. Bi dozena film utzi zituen, eta haietan, ikono bihurtu diren ehunka irudi. *Ilusioen zirkua* ikusi ondoren taupaka geratu dira, besteak beste, Fellini gazteak marrazturiko karikaturak, prentsan ateratako komiki-zintak, gerora zeluloidera pasako ziren irudi zirriborroak, eta bereziki, azken hamarkadetan transkribatu zituen amets ederrak. ■



ogiaren egia



Galparsoro
OKINDEGIA

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Aide Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Artea

Sarrera merkeak ez du museoak betetzen

“Artea ez da elitista. Gutxiengo batentzako jarduna bai, baina ez elitearentzat. Artera gerturatu eta berau ulertu eta partekatu nahi duen ororentzat da”, azaldu zion arte garaikidean aditua den Lourdes Fernandezek ARGIAri iaz. Baina artea ez bada elitista, herritar guztientzat bada, zergatik daude museo asko eta asko hutsik edo erdi hutsik? Jendeari artea ez interesatzea ote da horren arrazoi nagusia? Ala prezioak dira hutsunearen errudun? Nolako egoera bizi dute Euskal Herriko museoek krisi ekonomiko betean?

IRATI SARASUA

EUSKAL HERRIAN badaude doako museoak, esaterako Durangoko Arte eta Historia Museoa, baita Arabako arte museo guztiak ere. Beste zenbaitek ateak zabalik izaten dituzte astean egun batez edonorentzat, eta gehienek gazte eta helduentzat eskaintza bereziak dituzte. Halere, Euskal Herriko museo batzuetan sartzeko sei euro inguru ordaindu behar izaten dira. Askok ohiko sarrera prezioa bost eurotik gorakoa izaten dute, horren adibide dira Baionako Euskal Museoa (5,50 euro), edo Bilboko Arte Eder

2010. urtean %13 jaitzi zen Bilboko Arte Eder museoak erakundeetatik jasotzen duen dirua.

Museoa (6 euro). Horiez gain, munduko museo garestien artean dagoen bat ere badugu Euskal Herrian: Bilboko Guggenheim. Gehryren titaniozko barkura sartzeko txartelaren prezioak aurrekoak bikoizten ditu, 13 eurokoa baita.

Mundu osoan daude adibideak, azaltzen dutenak horrelako prezio desberdintasunak ohikoak direla: Londresen museo gehienak doakoak dira, Madrilgo El Pradoko sarrera 10 eurokoa da, Pariseko Louvrekoa 8,50, Vatikanoko museo guztiena 15 eta New



Yorkeko Arte Modernoaren Museoak 20.

Zein da prezio desberdintasun horien eragilea? Instituzioek nola laguntzen diete arte museoek? Eta nola eragin du krisiak bisitari kopuruan?

Laguntza publikoa

Egoera oso ezberdinak bizi dituzte museoek egun Euskal Herrian. Baina guztiak izaten dute instituzioen eskutik jasotako diru kopuru jakin bat. Doakoak diren museoak dagokion probintziako Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu. Arabako museo guztiak, esaterako, horregatik dira doakoak, Arabako Foru Aldundiaren esku daudelako. Baina jabetza pribatukoak direnek ere instituzio publikoen diru-laguntza jasotzen dute. Bilboko Guggenheim, adibidez, %75 pribatua da eta %25 publikoa. Urtarriletik ekainera bitartean gutxi gorabehera, ireki ahalko luke diru-laguntza publikoarekin soilik.

Bilboko Arte Eder Museoak ere instituzio publikoen laguntza jasotzen du, baina beste zenbait museori gertatu zaien bezalaxe, krisiaren ondorioz diru partida murriztu berri diote. 2010. urtean %13 jaitsi zen, 5.269.416 eurotik 4.663.200 eurora. Halere, murrizketak murrizketa, sail guztietako helburuak bete ahal izan zituztela jakinarazi dute Arte Eder Museoko arduradunek.

Krisi ekonomikoaren ondorioak

Murrizketek gain, gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoa ere kontuan hartu behar da bisitari kopuruari erreparatzean. Etxeko gastuak murrizteko unea iristen denean aisian sartzen dira artaziak aurrena eta horrek museoek bisitari kopuruari eragiten dio zuzen-zuzenean. Zentzu horretan ere diferentzia harrigarriak ikus daitezke euskal museoek artean. Batetik, badaude krisi ekonomikoan murgildurik egon arren bisitari kopurua hazi dutenak, Guggenheim adibidez. Udan 266.699 lagun pasa ziren Bilboko museotik, sortu zenetik pasa diren 14 urteetan bosgarren uda onena izan duela azaldu dute arduradunek. Baina, bestetik badaude krisiaren ondorioak gogor pairatu dituztenak. Azken hilabeteetako adibide argiena Chillida-Leku Museoaren itxiera izan da. Chillida familiak ohar baten bitartez azaldu zuen defizitak nabarmen gora eragin zuela eta ezinezkoa zela ekimen pribatuen bidez eustea. Instituzioen diru-laguntza eta



Euskal Herriko museoek artean sarrera garestiena Bilboko Guggenheimekoa da. Horrek, dena den, ez du eragin museoaren bisitari kopurua jaistea oraingoan.

esku-hartzea beharrezkotzat jo zuten, baina adostasunik lortu ez zuten behin-betiko itxi zuten Hernaniko (Gipuzkoa) museoak.

Azkenik, badaude krisia hasi aurreko emaitza paretsuak izaten jarraitzen dutenak ere, Bilboko Arte Eder Museoak esaterako. Urtetik urtera bisitari kopurua antzekoa izaten du, 200.000 lagun ingurukoa da eta azken hiru urteetan mantendu dela azpimarratu dute bertako arduradunek.

Museora noizean behin egiten du bisita jende gehienak, ez da ohitura, ez dago ia inoren asteroko planen barruan. Baina bisita horiek azken urteetan asko murriztu dira eta doakoak direnetan ere antzematen da jaitsiera; ordaindu behar diren museoetan baino gehiago, sarritan. Bide horretan murgilduz gero, zein izango da museoek etorkizuna? Haur eta gaztetxoek artearekiko interesa pizten saiatzen dira askotan ikastetxeak txangoak eginda, baina heltzen diren heinean txangoetan interesa zirudien hori ezerezean gertatzen da gehienetan. Instituzioen eta museoek arduradunen esku dago jendea horietara joatea? Ala herritarren ardura da? Ez al da paradoxa guztietan garestiena dena, Guggenheim,

urtetik urtera beteago egotea eta merkeagoak, aldiz, kinka larriak?

Ematen duenez, “marka”-k asko erakaritzen du, baita arte museoek alorrean ere, eta “marka” horregatik gure poltsikoak astintzeak ez gaitu gehiegi arduratzen, bai aldiz hain ezagun ez diren erakustokietara joateko ipurdia mugitzeak. ■




Etxeko gastuak murrizteko unea iristen denean aisian sartzen dira artaziak aurrena eta horrek museoek bisitari kopuruari eragiten dio zuzen-zuzenean

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

OILOA LOKA JARRI ARAUA, ERREGELA	PERTSONALA- REN ABIZENA LETRA ERRE- PIKATUTA	GOGOBETA	 DANI BLANCO	HANDITUZ JOAN PERTSONALA- REN IZENA	JOKO, OLGETA GERO, GERORA	AHUL, MAKAL JAIKO EGIPTOARRA
KIROL- LASTERKETA BARRU				NOLA DAGOENKO		
			EUSKAL TELEBISTA HIGUIN	BIRA ZAHAGI TXIKI		GIGA TXORIEN KANTUA
TONA XEDEA, BURUA	DANTZAL- DIETAN EGITEN DENA GOSEZ				ATZEALDE AHOA INGURATZEN DUENA	
		APAIZA MUSIKA ESTILOA				40 ERROMATAR ZENBAKIZ BAZKATU
PIEZA TXIKIZ OSATUTAKO APAINGARRI	... GAINETIK, OROREN GAINEAN EMAKUMEZ- KO IZENA		HAZKOR ERORITAKO HOSTOEN MULTZO			ESKU ARTEAN DUZUN ASTEKARIA
				LURBURUA SALDUKERIA EGITEN DUENA		
IZOTZ, HORMA SAKONA		BITARTEA KROMO- SOMEN OSAGALA			ZIZARE LEGEZ	
			BEIRAZKO ONTZIA ABANTZU, KASIK			GRAMOA ESTRON- TZIOAREN SINBOLOA
UGARITASUN ATZIKIA AZKEN BOLADA	DU, HAEI ELEKTROIA		ONTZAT EMAN DEUTERIOA			
					EGURRA	

Kike Amonarizen umorea

Hilzorian

Amona Hermenegilda hilzorian datza ohean. Suspirioka ari da baina halako batean semeari hurbiltzeko eskatu dio eta belarrira xuxurlatu:



– Joan hadi eta ekar itzak Joxejoakin aurrezki kutzako zuzendaria eta Arantxa abokatua. Esaiek eguerdin nire alboan ikusi nahi ditudala. Semea etxetik atera eta eguerdira-

ko biekin itzuli da. Joxejoakini ohearen alde batean jartzeko eskatu dio amonak, eta Arantxari beste aldean. Ordu-ra arte isilik egon den semeak ordea:

– Ama! Baina zertarako deitu diezu bi hauei?
– Hara, seme! Jesukristo bi lapurrez inguratuta hil zen eta halaxe hil nahi dut nik ere!

Soluzioa

M	J	H	A	L	M	B	M	L
R	G	N	R	O	R	D	S	N
E	A	A	E	A	A	A	A	A
L	Z	Z	J	Z	H	O	B	D
A	E		I	A	A	A	O	I
N	L		R	O	H	A	N	E
G	A		A	S	A	Z	E	N
T	I		O	T	P	G	L	A
E	A		S	E	O	A	L	O
X	G		T	E	A	P	A	A
L	A		A	A	H	A	H	A
I	G		A	I	A	R	I	A
			D	E	T	I	L	A
			A	O	N	E	T	S
			B	O	N	E	T	S
			I	O	N	E	T	S
			D	E	T	S	I	A
			I	O	N	E	T	S
			Z	E	T	S	I	A

argia orain zure eskuko telefonoan ikusgai

Eskuko telefonoarekin eta QR kodeari esker, momentuan bistaratuko dituzu ARGIAko edukiak Interneten

Gustuko duzun artikulu hori lagun bati bidali nahi diozula?
Ezinegona sortu dizun erreportajeari buruz iritzia eman nahi duzula?
Elkarrizketa interesgarri horren bideoa ikusi nahi duzula?
Iragarki batean ikusi duzun produktua eskuratu nahi duzula?

Orain QR kodeak lagunduko dizu. Hona argibideak:



> Non lortu QR kode irakurlea?


Eskuko telefono bakoitzak bere irakurgailu berezia behar du. Hartu sakelekoa eta jaitsi ezazu zeurea! Irakurle ezberdin asko daude. Hemen ARGIAren gomendioak:

- iPhone-erako: Redlaser (www.redlaser.com)
- Blackberry-rako: Beetagg (www.beetagg.com)
- Android-erako: Barcode Scanner (www.market.android.com)

- 1 ARGIA astekariko artikulu bakoitzaren bukaeran QR kode bat aurkituko duzu.
- 2 Eskuko telefonoan jaitsi berri duzun kode irakurlera sartu eta argazki makina baten moduan, QR kodearen aurrean jar ezazu honek edukia irakurri arte. Adi, garrantzitsua da kodea enfokatu erakustea.
- 3 Prest zaude zure mugikorrean ARGIAz gozatzeko!



Ausar zaitetz QR kode hau irakurtzera eta argia.com berriua ezagutuko duzu!



Liburuak

KRITIKA

Zoritzarreko biografia

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

PHILIP ROTHEN azken eleberriak jaso dituen iruzkinek ustekabeen harrapatu naute. Egia da pertsona bezain-beste gustu dagoela, batez ere liburuez, irakurleez eta irakurketa mailez ari garenean. Zentzu horretan, iritzi aniztasunak ez ninduke zertan harritu baina, Rothek *Nemesis* eleberrian kontatzen duena transzendentziarik gabekoa dela dioten kritikak lekuz kanpo daudela iruditzen zait. Are gehiago, aurreko lanetako Roth “berdinaren” aztarna ageri ez dela bezalako argudio, ene iritzi, pisu gabekoetan oinarritzen direnean.

Ez daukat idazle estatubatuar honen defendatzaile sutsuaren itxura emateko intenziorik, erabat profanoa naiz bere obraren gainean. Hala eta guztiz ere, ez dut uste Beñat Sarasolak eleberri ezdeus bat itzultzeko asmoa zuenik; Bucky Cantor izeneko gazte baten istorioa euskaratua izatetik harago, konturatzen gara Rothen prosak badaukala zer esanik.

1944ko udan, AEBetako indarrak Pazifikokoan borrokatzen ari ziren garaian, eta gazteen zintzotasuna Bigarren Mundu gerran parte hartzeko gaitasunen arabera neurtzen zeneko momentu berean, polio



Nemesis.
Philip Roth.
(Itzultzailea: Beñat Sarasola).
Meettok.
234 orrialde.
18,50 euro.

epidemia batek hamabi urte inguruko haurren aurkako gerra piztu du. Newarkeko auzo juduak jasaten dituen bizi galerek panikoa zabaldu dute, eta desesperazioak bultzatuko du komunitatea errudun bat bilatzera. Bucky Cantorren bizitza ez da erraza izan; ama galdu zuen jaiotzean, kartzelan preso egondako lapurra zuen aita, eta harengandik jasotako ikusmen arazoek, armadan parte hartzeko gazte ezgaituen zerrendan gelditzera kondenatu zuten. Aitonari esker, barneratu zuen bizitzari aurre egiteko ikuspegi heroikoa: “prezio bat pagatu behar duzunean, pagatzea” (29. orrialdean) baina, nola egin jaiotzeko momentu beretik markatua izan zarenean? Nola gaingitu, kanpotik geureganatzen dugun Ni-aren konstrukzio idealari, “behar bezala” erantzun ezin izanak, eragiten duen porrot sentimenduaren oinazea? Gure printzipio moralek azal dezakete gertatzen den oren zergatia? Non hasten da eta non bukatzen gertaeren gaineko giza-erantzukizuna?

Rothek ez du erantzunik ematen, inork ez baitu bizitzaren eremu zentzugabekoari aurre egiteko errezetarik. Nahikoa du, giza adimenaz azaldu ezin denaren inguruko galderak formulatzearekin. Bucky Cantorren istorioak bizitzaren alderdi ilun, irrazional eta gupidagabekoa islatzen du; “zergatik polio epidemia? Zergatik hil da? Non dago justizia? Zergatik tragediak gutxien merezi duen jendea du eraisten?” (46. orrialdean). Erantzun zein erantzulerik gabeko kaosaren aurrean pertsonaiak errudun baten irudia bilatuko du, halabehararen tirania hutsak ez du asetzen, eta aitona-rengandik jasotakoari jarraiki, berak ere, dagokion prezioa ordaindu beharko du.

Intranszendentea? Ez, zori hotz eta kaotiko hutsa erantzule duen mundu baten emaitza. ■



TALLERES
MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Belladona.
Belladona.
GP Producciones.
Iraupena: 49'20".
10 euro.

Pop-rocka komertziala ez denean

ROCK GARAIKIDE GISA deskribatu dute GP Producciones diskoetxe beteranoko arduradunek Donostialdeko Belladona taldearen musika eskaintza. Ez dut nik esango hirukotea garaikidea ez denik, kantak gaur egungoak baitira; baina esango nuke aldi berean poperoak, rockero klasikoak, komertzialak eta esperimentazioaren aldekoak direla. Oinarrian pop-rocka egiten dute, komertziala dirudiena, gaztelaniaz abes-tutakoa, baina sardexka pixka bat sartu-

ta azkar azaleratzen dira The Police, Television, The Clash, Santana, indie familia, bluesa, jazz, funkya, baita urru-nean 713avo Amor taldea ere. Musikari oso finak dira, eta kantaren ñabardurak erabat landuta dituzte, baita Javi Fermín-en metafora eta iruditeria dotorea ere. Dotoreziaz eta irudimenez egindako debuta, zoritxarrez esku gutxitara hel-duko dena.

www.myspace.com/mundobelladona

Javi Fermín eta Emmanuel Losio - Belladona

«Ibilian-ibilian motxila bete dugu, baina ez dago zamarik, esperientziek aberastu gaituztelako»

“Hainbeste ibili ostean, hasi naiz antzematen helburua dela bidaiaz gozatea besterik gabe”. Urte asko daramazue musikaren alorrean borrokan ondorio horretara heltzeko?

Javi Fermín: Bai, guztiok urte asko daramatzagu proiektu ugarran lanean. Motxila beteta dugu, baina ez dago zamarik. Esperientzia guztiek aberastu gaituzte.

Emmanuel Losio: Ez dut inoiz borroka gisa ikusi, beharra da. Musikak bizitza beste modu batera ikusten lagun zaitzake.

Maldito. Zaila da Euskal Herrian gaztelaniazko pop-rocka eginez lekua egitea?

J.F.: Ez dut uste hizkuntzak eta lekuak halako garrantzia dutenik, lana gogor egin eta zurean erabat sinesten baduzu. Bestalde, guztientzako lekua eta entzuleak daudela uste dut.



Poperoegiak batzuentzat eta ñabardura eta aldaketa gehiegi poperoentzat. Hala da?

E.L.: Hori da proiektu honetara batzeko gehien erakarri ninduen. Gainera, jazz musikaria naizen heinean aberasgarria egiten zait beste estilo batzuetako ukituak gehitzea. Azken finean, garrantzitsuena, etiketatik at, lana ondo egin eta zugandik gehien ematea da.

Hitzetan metafora oso lan-duak aurkitu ditut.

J.F.: Garrantzi handia ematen diet. Behin eta berriro idazten ditut, erabat gustura gelditu arte. Helburua da sentsazio zehatz batzuk transmititzea. Abesti batean hitz gutxi daude eta hori doinu bati lotu behar zaio, baina batzuetan lor daiteke.

Mota oso desberdineko kantak batu dituzue eta, besteak beste, “Dímelo”-k

harritu nau: Television eta Policeren ukituak, latindar leloa eta Santanaren antzeko gitarrak. Nola jaio zen?

J.F.: Abesti horri maitasun handia diot; diskoko pieza zaharretarikoa da eta denboraren kabuz ondo borobiltzea lortu dugula uste dut.

E.L.: Agertokian asko mugiarazten nauen kantua da. Oso beta da eta indar handia dauka, bai. ■



Ezpalak

JON TORNER

'Ipar haizearen kontra' obra estreinatuko du Tanttaka taldeak

HILAREN 20an estreinatuko du Tanttaka antzerki taldeak *Ipar haizearen kontra* obra, Bilboko Arriaga antzokia, 11:00etan. Egun berean, iluntzeko 20:00etan ere ikusgai izango da antzezlanaren Arriagan, baita ostiralean eta larunbatean ere. Orotara 30 emanaldi baino gehiago eskainiko ditu Tanttakak. Daniel Glattauer idazlearen *Gut gegen Nordwind* el eberrian oinarritua, Internetz elkar ezagutu duten bi lagun arteko harremana du ardatz istorioak. Antzezlanaren Fernando Bernuesek zuzendu du, eta Joseba Apaolaza, Kike Díaz de Rada eta Itziar Aienza dira aktoreak.



Dantzan Bilaka programan 9 koreografok parte hartuko dute

IKUS-ENTZULEEI beren lanak erakutsi nahi dizkieten koreografo hasiberriek zuzendurik dago Eusko Jaurlaritzaren Dantzan Bilaka egitasmoa. Orotara hamazazpi proiektu aurkeztu dira aurten, eta horietatik bederatzia hautatu ditu Kultura Sailak. Diru-laguntza emateaz gain, sorkuntza-prozesuaren jarraipen artistikoa eta teknikoa ere egin zaie hautagaiei, beren sormen-prozesuetan. Orain, prozesuok amaituta, bederatzia koreografoen lanak Bilbon eta Gasteizen izango dira ikusgai (Donostian izan dira jada):

Artium, Gasteiz - Urriak 21, 19:30

Estibaliz Olabarrí: *PLAYSTANDS STILL*.

Eneko Gil-Noemi Viana: *Tempus, -i*.

Nagore Somoza: *Sasi eta hodeien artean*.

Guggenheim, Bilbo - Urriak 26, 19:00

Carla Fernandez: *GU-nosotros los heroes*.

La Merced, Bilbo - Azaroak 2, 20.30

Eneko Balerdi: *Lakua*.

Oiane Lopez de Munain: *Nabua*.

Mariela León: *Tela para falda y no oso en la orilla*.

'80 egunean' filmak hiru sari jaso ditu Tolosako (Okzitania) Cinespaña jaialdian. Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren pelikula gidoi onenaren eta publikoaren sariak jaso ditu, eta Itziar Aizpuruk eta Mariasun Pagoagak emakumezkoen interpretazio onenaren saria.



Esther Ferrer (Donostia, 1937) artistari buruzko erakusketa monografikoa paratu dute Gasteizko Artium zentroan. Oso ezagunak ez diren lanak eta aurrez inon erakutsi ez dituzten obrak jaso ditu *Lau mugimendutan* izeneko erakusketak. Ferrerren lanean konstanteak diren lau gairen inguruan osatu dute: denbora, infinitua, errepikatzea eta presentzia. Areto bana eskaini diote bakoitzari, eta egitura paretsua eman diete deni.

Asier Altuna bergararraren *Bertsolari* dokumentala Hego Euskal Herriko zinema aretoetan ikusgai da jada. Txintxua Films produkzio etxearen pelikula bertsolaritza du ardatz, isiltasunen eta bertsoak abesteko artearen garrantzia azpimarratuz. Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak hartu dute parte, besteak beste.

● **Ikerne Badiola Gipuzkoako kultura diputatua Tabakaleraz aritu da. Besteren artean, Garak egin-dako elkarrizketan:** «Kultur proiektua ez da *standby* egoeran geratu: obrak aztertze epe bat eskatu genuen bezala, kultur proiektua aztertze epe bat behar genuela ikusi genuen. Ez dugu dagoen proiektua baztertzen, baina uste dugu berraztertu beharra dagoela, eta baldintza berrietara egokitu. (...) Uneotan proiekturik handiena da, eta behar bezala aztertu behar da. Egia esan, proiektua duela urte asko abiatu zen: hasi zeneko egoera ekonomikoak eta gaur egungoak ez dute zer ikusirik eta, hasiera batean, tartean dauden erakunde guztiak aurrera egiteko borondatea dute. Tabakalera garrantzitsua dela uste dugu, baina gaur egungo baldintzetara egokitu beharko dugu ezinbestean».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

ENEKO DORRONSORO

Dakidan bakarra

ELKARRIZKETA BAT ikusi berri dut: *Wikileaks eraitsiaz* (*Desmontando a Wikileaks*) liburuaren egile Daniel Estulini Kataluniako telebistan egina. Ezer ez omen da dirudiena. Eta ustez banekien. “Niri ez didate sartuko...”. Baina zeharbide sasi-alternatiboetatik zerbait iritsi orduko, barrura: “Ikusten? Esaten nizun nik...” Eta plasta! Orduan sartzen dugu hanka. Ohartzeko noski, begi aurrean sortu diguten antzezpenak geruza bakarra zuelakoan, eta hura saihestu izanaz harro. Ba harrapazak! Wikileaks ere jokoaren parte omen da.

Michael Moore aipatzen du elkarrizketan, eta haren *Fahrenheit 9/11* filma. Hark ni ere ez ninduen konbentzitu. Hain erraza zirudien... Bakeroak bilakatzen ziren gaizto, eta indioentzat ziren loreak. Betiko eskema, pertsonaiak elkar-trukatuta, besterik ez. Errazegia.

Dirudienetik denera bidean, Victor Erizeren lan bat datorkit gogora: *La morte rouge*. Eta nondik sortu zitzaion: bere haurtzaroan zineetan, filmaren aurretik No-Doa proiektatzen zen (baita beste jenerazio askorenetan ere tamalez). Berri haiek egiatzat jasotzen zituzten haurrei, errealismo-fikzioaren mugetan lauso-

tzen zitzaien jarraian ikusten zuten filma. Zer zen asmatua, eta zer erreala? *El espíritu de la colmena* filmean ere jolastu zuen bi munduokin Erizek, Frankensteinen munstroa pantailatik haurraren errealitatera ekarriaz.

Umetzat beti izan dut nire burua, baina errealitatearen eta fikzioaren arteko muga argi trazatua nuelakoan nintzen. Banekien No-Doak errealetik ez zuela Michael Mooren dokumentalek baino gehiago. Eta harro nengoen: “Niri ez didate sartuko...”. Bigarren antzokian lasai, txotxongiloen hariak ikusten nituelakoan. Eta bai zera! Show honetako Truman bat gehiago naizela esan dit Daniel Estulin delako horrek. Ikusten dudana ez dela benetan gertatzen ari.

“Ezer ez dakidala da dakidan bakarra”. Baina pensalaririk ere ez dakit bere maxima lortuko ote zukeen informazioz biziaturako gizarte honetan. Gure amak beti esan ohi du gertakari bakoitza azterterakoan, mesederik gehien nori egiten dion galdetzearekin aski dela. Eta Interneten begiratu dut: Estulinen liburuak izugarrizko arrakasta dute.



EGIZUHARPIDETZA
EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELAPARRA
HEMEN HAN

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkoa. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Zuloa Artikoko ozonoan ere



STEVE JOBSEN HERIOTZA mundu osoan hizpide den une honetan, lehen Macintosh-a merkaturatzearekin batera azaldutako ozono geruzaren zuloaz arituko gara aste honetan. Orain da garaia jakiteko zertan den ozono-mailaren jaitsiera Antartikan, baina aurten aldagai bat dugu balantzea egitera: irailaren amaieran ezagutu genuen Artikoko ozono-geruzaren zuloa, mar txoan detektatu zuten arren.


Batek baino gehiagok deitu zidan esateko: "Joxerra, aurten

zuloa Artikoan ere, e!", eta nire bat-bateko erantzuna, beti bera: "Horixe tokatzen da, bai, baina Artikoan ez, Antartikan baizik". Eta halako batean, han eta hemen irakurtzen hasi nintzen: "Zuloa Artikoan". Orain 25 urte ozono-geruzaren zuloari buruz emandako hitzaldi batean Jose Ramon Etxebarria irakasleak egin zidan iruzkina etorri zait garuneko lehen geruzara: "Uste dut gai honetan interes ekonomiko handiak izan daitezkeela".

Oraingoan arrazoi osoa eman behar diot Etxebarriari. Egunez egun, NASAk Antartikako zuloaren egoeraren berri ematen digu, baina Artikoan ere zuloa dagoela sei hilabeteko atzerapenarekin jakinarazi dute. Zergatik?

Nire ustez, erantzuna ez da oso urruti ibiliko ondoko argudiotik: Artiko inguruan hainbat estatu aberats daude,hots, Errusia, Suedia, Norvegia, Kanada eta AEB. Zientzialariek eta estatuetakoa agintariek, iragan martxoan, bazuten Artikoko zuloaren berri, baina hori besterik ez zitzaion falta, Fukushima tragedi gertatu berri zela Artiko inguruan bizi direnei esatea zein arriskutan izango ziren aste batzuetan? "Izan gaitezten zain irailera arte, eta orduan, Antartikoko zuloaren ohiko agerpena izaten denez, naturalago pasatuko da Artikokoa".

Nire argudioak ez duela oinarri zientifikoa aitortu behar dut, baina datu zientifiko batzuei, eta horiek publiko egindako testuinguruari zentzu komuna aplikatzen saiatu naiz. Beti bezala, irakurle, zure esku uzten dut nire iritzi gaizto honen inguruko epaia.



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com
T.943 37 67 16

Steve Jobsi buruzkoetatik beste bat

Roberto Di Cosmo Paris-Diderot Unibertsitateko irakasle eta software librearen defendatzaile porrokatuak –Steve Jobsen aurkaria, beraz– bestelako iritzia eman du hil berri ben estatubatuar berri-tzaileari buruz.

<http://ttiki.com/31762> (Frantsesez)

Ume elebidunei luzeago irauten die hizkuntzak ikasteko erraztasunak

Umeek erraztasun handia dute bigarren hizkuntza ikasteko, baina handitu ahala ahalmen hori txikitzen joaten da. Aldiz, Washingtongo Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde baten arabera giro elebidun batean hazitako haurrei gehiago irauten die hizkuntza berriak ikasteko ahalmenak.

<http://ttiki.com/31763> (Gaztelaniaz)

Mikrobioen aireko bidaiak

Erresuma Batuan egindako ikerketa batek mikrobioek airean bidaiak dezaketan distantzia aztertu du, epidemiak hobeto ezagutu ahal izateko. Esan dutenez, mikrobioa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta ahalmen handiagoa du bidaiatzeko, eta bidaiak milaka kilometrokoa izan daiteke gainera.

<http://ttiki.com/31764> (Gaztelaniaz)

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Diruaren izurria

FLANDRIAN 1637AN “Viseroij” aldaerako idi-bihotz (*Tulipa* sp.) erraboil bat eskuratzeko artisau eskulangile trebe baten hogeituro urteko soldata ordaindu behar zen, tokiko eta garaiko 3.000 gulden. Orduko berripaper batek dioenaren arabera, diru horrekin zortzi txerri, lau idi, hamabi ardi, 24 tona gari (*Triticum* sp.), 48 tona zekale (*Secale cereale*), 480 litro mahatsardo, bi barrika garagardo, 2.000 kilo gurin, 1.000 libra gazta, zilarrezko edalontzi bat, ohe bat bere koltxoi jantzi eta guzti eta txalupa bat erosi zitezkeen. Astakeria galanta!

Ez zen garestiena, ordea. Astakeria handiagoak egiteko prest zegoen jendea bazen. Sasoi haietan geurean bezala, han ere itsasontziak tresnatzen zituzten ontzi-jabeak ziren aberatsenak. Eta pitokerietan tentelenak. Dutch East India Companyko zuzendariak, zorriak ziztatuta erantsitako birus baten ondorioz kolore nahasketa berezia zuen idi-bihotz bat zuen. Bakarra, “Semper Augustus” aldaerakoa. Urtetan inori eman gabe berak ugaltu zuen eta ikusten zutenen gorespen eta laudorioak zirela-eta, urtetik urtera gero eta diru gehiago eskaintzen zioten lore dotorearen erraboil baten truke: 1623an 1.000 gulden bazen, 1637an 10.000. Gehiegizkoa, neurritz kanpoko! Dirutza horrekin

Amsterdamgo modako kanalaren bazterrean etxe handi bat eros zitezkeen, edo bertako familia oso bat bitzta erdian jantzi eta elikatu. Laster damutuko zen, koittadua, saldu ez izanaz. Konparaziorako, Rembrandt margolariak bere *De Nachtwacht* (Gaueko erronda) maisulana 1.600 guldenetan saldu zuen 1642an. Jendeak Tulp abizena gehitzen zion bereari, gorazarre haizearen ikur. Horixe egin zuen aipatutako margolariaren 1632ko *De anatomische les van Dr. Nicolaes Tulp* (Nicolaes Tulp doktorearen anatomia irakaspena) lan ospetsuko Claes Pieterszek.

Sekula gehien ordaindu den idi-bihotz erraboila “Violetten Admiral van Enhuizen” aldaerako bat izan zen, Alkmaar hirian 1637ko otsailaren 5ean: 5.200 guldenen ordainetan. Saltzailea gustura izango zen. Bi egun lehenago Haarlemen enkantera jarritako erraboilek ez zuten erostunik izan eta “tulpenwoede” eromenaren amaiera hasi zen. Sekulako krisian amildu zen estatua. Harrez gero, diruaren salerosketatik bizi den jendilajeak honelako krisiei “tulipmania” deitzen die.

Hori gertatzen ari zenean, 1633 eta 1637 artean, herritarren zazpitik bat lurpera eraman zuen izurri bubonikoak jo zuen herrialdea.



JAKOBA ERREKONDO



Piperminak

Piperminak min pixka bat behar duela uste duten horietakoa naiz. Etxeko kasta. Udan tomatea adina gustatzen zait pipermina, edo gehiago! Frijitua gutizia. Gordinik tomate berarekin edo babarrun berrie-kin... zerua. Kapsizina deitzen den osagaiak ematen dio mina edo beroa piperrei. Toki bero eta lehorretan hazi egiten zaio, ahosabaia sorgortzeko gai izateraino. Isuri atlantiarreko lurretan, baina, hezetasunak bi lan egiten ditu: batetik, min horri tamainan eusten dio eta, bestetik, azal fina ez zaio zakartzten. Ebro aldeko piperminak sua dira, itsasaldekoak mauka. Eta kapsizina punttu horrek digestioa errazten du, babarrun janaldi baten ondoren eskertzekoa...



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Kolonbia Handia zergatik ez?

JOHN TRUMBULL



AEBen independentzia aldarrikapena, 1776an. Hego Amerikako koloniak ere saiatu ziren batzen eta Kolonbia Handia delakoa sortzen, baina proiektuak ez zuen arrakastarik izan.

CÚCUTA (EGUNGO KOLONBIA), 1821EKO URRIAREN 3A. Goizeko 11etan, Simon Bolibar elizako bilera aretoan sartu zen. Kongresuko presidentearen alboan jarri zen, eta Kolonbia Handiko Errepublikako presidente karguaren zina egin zuen. Kolonbia Handiak egungo Kolonbia, Venezuela, Ekuador eta Panama batzen zituen, baita beste herrialde batzuetako hainbat lurralde ere, baina Hego Amerika osoa biltzea zuen helburu. Mende erdi lehenago Ipar Amerikako kolonia gehienek arrakastaz batzea lortu zuten, baina Kolonbia Handiak hamar urte soilik iraun zuen, eta batasun juridikoak ez zuen praktikan aurrera egin. Zergatik ez?

Benedict Anderson historialariaren arabera, komunikazioa funtsezko elementua izan zen. Hego Amerikako gune administratiboak oso zabalak ziren, elkarren arteko loturarik ez zen ia, eta teknologia eta garapen ekonomiko maila oso desberdinak zituzten. Egoera horrek tokian tokiko identitateak indartu zituen, eta identitate komuna oztopatu. Aldiz, Ipar Amerikako hamahiru kolonia ingelesek batera Argentinak baino azalera txikiagoa zuten. Merkatu gune nagusiak (Boston, New York

eta Philadelphia) hurbil zeuden, eta inprentak eta merkataritzak are gehiago hurbiltzen zituzten. Dena den, porrotak ere izan ziren iparrean, Kanada anglofonoa ez baitzuten txertatu eta Texas independente izan baitzuten hamar urtez (1835-1846).

John H. Elliott historialariak, berriz, tirabira sozialen garrantzia nabarmentzen du. Haren esnetan, Hego Amerikan gizarte gatazkak larriagoak izan ziren, espainiarrek ezarritako arraza hierarkia ingeles kolonietako hierarkia baino askoz konplexuagoa zelako. Ipar Amerikan gizartea bitan zatituta zegoen: zuriak eta beltzak.

Horrez gain, britainiar kolonia bakoitzak bere ordezkaritza batzordea izan zuen, eta Amerika espainiarrean horrelakorik ez zen izan. Horregatik, Hego Amerikako eliteek ez zuten gobernuan inolako esperientzia biltzeko aukerarik izan. Inperioko botere zentralaren eta lokalaren artean ez zegoen bitarteko administratiborik. Horrek agintari lokalei eta beren aldarrikapenei egin zien mesede, aldarrikapen orokorragoen kaltean. Hego Amerika Batuaren kaltetan.



Arrastoak

Tsunamiek suntsitu zuten Olinpia

OLINPIA MITIKOA, Zeusen tenpluaren egoitza eta antzinako Greziako Joko Olinpikoen sorlekua, lurrikara batek eragindako uholdeak suntsitu zuela pentsatu izan dute adituek orain arte. Baina Peloponesoko gune hori hainbat tsunamik jo zutela adierazi berri du Mainzeko (Alemania) Johannes Gutenberg Unibertsitateko Andreas Vött geografoak. Haren ikerlanaren arabera, olatu erraldoien ondorioz zortzi metroko sedimentu eta harea geruzak estali zuen hiria, eta arrastoak ez zituzten duela 250 urtera arte topatu.

Vöten lantaldea Mediterraneoan azken 11.000 urtetan izandako tsunamiak aztertzen ari da eta, beraz, baliteke emaitzek beste hipotesi batzuk ere zalantzan jartzea.



LUIS MARIA RIVAS

Iñaki Carro

«Ziur naiz epaileak arrazoi emango digula Kukutzarekin»

Basauriko kartzelan izan zen lehenengotako intsumitua da Iñaki Carro (Sestao, 1971). Sestaoko langabetuen asanbladan urte mordoia ibilia eta pobrezia-aren kontrako Argilan taldean ere aritutakoa. Bilboko Okupazio Bulegoan dabil buru-belarri orain. Kukutzako abokatua da.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

Kukutza hustu eta eraisteko argudio nagusia izan da "epaileak agindu" duela. Hain zuriak eta beltzak al dira kontuok legalki?

Epaile batek agindu duela? Bai, baina guk helegite bat jarri dugu eta oso litekeena da probintzia auzitegiak arrazoa ematea. Argudio juridikoa oso erraza da: Kukutzaren okupazioa duela 12 urte salatu zuten eta artxibatu egin zen. Enpresak auzia berriz zabaldu nahi izanez gero, beste epaitegi batera jo beharko luke. Baina bide penala erabili dute, nahiz eta guretzat bide zibiletik defentsa juridikoa zailagoa izan, hortxe dago koska.

Zergatik?

Tranpa bat egiten dute bide penaletik abiatuta: desalojoa eskatzen dute behin-behineko neurri bezala, eta behin hustuta, kasua artxibatu egiten da. Hori legeari iruzur egitea da, legea beste helburu batzuekin erabiltzen dute, eraikina berreskuratzeko.

Kukutza ez botatzeko zein irtenbide zegoen? Borondate politiko kontua al zen?

Beti dago biderik. Jabetza pribatua sakratua da, baina autopista bat zure lurretik pasatzen bada, onura publikoa zure jabetzaren gainetik jartzen dute. Hori egin zitekeela Kukutzaren kasuan? Nahiko legala dirudi. Esan zitekeen "behar dugu lur hori auzoko bete-behar sozial eta kulturalentzako", legala litzateke. Baina eraispenaren aurretik egindako epaiketari garbi geratu zen atzetik Bilboko Udala zegoela, eta ez enpresa.

Zer ikusi zenuten, bada, epaiketari?

Eraispenaren defentsa handiena udal abokatuak egin zuen, Cavisa enpresaren abokatuak atxikimendua baino ez zion adierazi. Bilbo-



“Estatuak eta politikariak legitimotasuna galtzen ari dira etengabe”

ko Udaleko abokatuak Kukutza bera oso gogor kritikatu zuen, eta proiektuaren ilegaltasuna salatuz.

Prozesu osoan irregulartasunak izan direla salatu izan duzue. Zein nabarmenduko zenuke?

Epaitegiak eraispen agindua eman zuen inputatuen deklarazioa baino lehen, hori ilegala da. Jabe batek salatu dezake okupa batzuk sartu direla bere etxean, baina igoal ez dira okupak, maizterrak baizik. Horregatik epaileak alde guztiak entzun behar ditu. Bestalde, Cavisak agortuta zuen eraikitze baimena. 1994an erosi zuen eraikina, eta auskalo zer *trapitxeorekin* lortu zuen Udalak espresuki lurra urbanizagarri bihurtzea. Baina Udalak uzten dizu eraikitzen baldintza batekin: eraikitze. Itxaroten baduzu ea lur zorua ez den prezioa igotzen den... Hori espekulazionalak egiten dute.

Jabetzaren kontzeptua auzitan jarri da. Askoren ustez, jabe batek urte luzez eraikin bat utzirik badauka, jabe legitimoak eraikin hori zaindu dute-nak dira. Baina nola defendatu daiteke legitimitate hori legalki?

Ordenamendu juridikoan badago irudi bat: usukapioa. Eraikin baten jabetza eskuratzeko, epe jakin bat igaro behar dela esan nahi du hitz horrek. Hori existitzen da, baina ez da aplikatzen. Normalean okupazio kasuen erdiak artxibatu edo absolutu egiten dira, [Espainiak] Konstituzioak argi esaten duelako jabetza babestu behar dela funtzio soziala duenean eta botere publikoek espekulazioa eragotzi behar dutela.

Kukutza bota dute, baina jarraitzen al duzue haren aldeko borrokarekin?

Helegitea jarri dugu eta hilabete eta erdiren buruan erabakita beharko luke. Konbentziturata nago arrazoia emango digutela. Eta sozialki ere argi geratu dira hainbat gauza. Kukutza ez zen edozein gaztetxe, oso handia zen eta Errekaldeko auzoarekin lotura estua zuen. Beste aldean, aldiz, espekulazionalak batzuk ditugu, ustelkeria urbanistikoa egiten duten kondanaturik daudenak.

Iñaki Azkunak esan zuen Bildu zegoela Kukutzaren atzean, Rodolfo Aresek



“Lana haien errugatik galdu duzu, ezin diozu hipotekari aurre egin eta etxetik bota zaituzte. Zer egingo duzu? Ba okupatu!”

“kale borrokaren nostalgikoak” aipatu zituen, antisistema jendea zela...

Guztiok genekien Kukutzak sostengu handia zuela. Gaztetxe batzuk getho bilakatu izan dira, baina Kukutzaren asmoa beti izan da zabalik egotea. Harrigarria da Azkunaren mezuak oraindik jendearengan eragiteko duen gaitasuna. Hemen diote ezker abertzalea dagoela atzean, eta Murtzian esango dute Al Kaida dela... Satanizatu egin behar da, denborarekin deabruak aldatzen dira baina.

Aresek “gerrilla urbana” hitza erabili zuen. Izugarria. Ni han izan nintzen eta garbi dut lehenengo egunean, asteazkenean, Ertzaintzak istilurik ez sortzeko agindua zuela; ikusi besterik ez zegoen ertzain burua bere mutilen atzetik, nerbioak jota, lerroa mantentzeko aginduz. Baina ertzain batzuk *motu proprio* hasi ziren jendea jipoitzen. Kontua da Rodolfo Aresek hurrengo egunean kontrako agindua eman zuela. Guztiok dugu buruan edukiontzien irudia kalean erretzen, baina hori desalojotik 60 orduetara gertatu zen. Aresek behar zuen argazki hori, zeren eta asteazkeneko irudiarekin geratuko bagina... Hala ere, kezkarria iruditzen zaidana

“Jende askok sentitzen du mugitzeko beharra eta gaztetxeena izan liteke bide natural bat”

da, ez daukagula polizia bat zenbait egoeratarako prestatua.

Murrizketa sozialek, gazteen artean dagoen langabezia tasa handiak, atsekabeak... Ba al dute zerikusirik Kukutzaren alde sortutako erantzunarekin?

Garbi dago baietz. Estatuak eta politikariak legitimotasuna galtzen ari dira etengabe; erakusten ari dira haiek ez dutela gobernatzen, bankuek eta Munduko Diru Funtsekin baizik. Ni harrizten nau nola jendeak oraindik hauteskundeetan parte hartzen duen. Krisiek normalean jarrera insolidarioak bultzatzen dituzte, baina gobernu batek legitimotasuna galtzen duenean...

Eta okupazio mugimenduan oro har, nabaritzen al da testuinguru hori?

Nabaritzen da Euskal Herriko egoera politikoa normalizatzeko bidean dela; jende gaztea hasi da berriro gizarte mugimenduez arduratzen. Jende askok sentitzen du mugitzeko beharra eta gaztetxeena izan liteke bide natural bat. Bestalde, kasualitatea izango da, baina azkeneko urteotan Okupazio Bulegotik pasa diren talde ugari orain izango dute epaiketa.

Duela urte batzuk jarri zenuten mar txan Bilboko Okupazio Bulegoa, zerk bultzatuta?

Okupatzeko arrazoi mordoia egon liteke. Batzuk kluxe kontu batengatik egiten dute; guk okupazioa bultzat-

tzen dugu presionatzeko modu bat delako. Nahiko genuke Bartzelona-koa lortzea: han norbaitek etxea hutsik badu, "okupatuko didate" pentsatzen du, presioa nabaritzen du. Bilbon 16.000 etxebizitza daude hutsik, bahituta, haietako erdiak alokairura aterako balira... Hemen egunean lau-sei kaleratze egiten dira. Lana haien erruagatik galdu duzu (bankuak, inmobiliariak...) eta ezin diozu hipotekari aurre egin, gainera etxetik botatzen zaituzte... Zer egin-ago duzu? Ba okupatu! BBK-k auskalo zenbat etxebizitza dituen hutsik, bankuak presionatu behar dira. Okupazio Bulegoan gauden gehienak pobrezia kontrako taldeetatik etorri gara hausnarketa erraza egin dugulako: Etxebizitza izugarri garestitu da eta horrek *jaten* du gure soldataren zati handiena. Lapurreta da. Bizitza osoa lan egiten bankuari ordaintzeko... Gauza tristea da hori.

Gaztetxeetako auziak ere badaramazkizue bulegoan, kasuistika ezberdinak al daude?

Denetarik dago. Aurrekoan, Erandioko hitzaldi batean bi esperientzia ezagutu genituen. Bata, Sopolakoa. Duela urte bete dago han gaztetxea eta jabearekin akordio batera iritsi dira gutxienez beste hiru urtez egoteko. Bestea, Plentziakoa. Kasu honetan saiatu ginen behin eta berriz akordiora iristen baina ez zen posible izan eta azkenean hustu egin zituzten; niri faxa desalojoa gertatu eta lau egunetara iritsi zitzaidan. Normalean gaztetxe batek arazoak dituen bulegotik pasatzen da: Santutxuko Zazpi Katu, Portugaletekoa, Barakaldokoa, Bakio-

"Defendatuen defentsa jipoitzea ezin da ametitu"

Gauak neramatzen mugikorra amatu gabe, eta goizeko 5:30etan deitu zidaten Kukutza hustu behar zutela esateko. Zuzenbide Estatuan oinarriko garantia batzuk egon behar dira, eta horien artean dago abokatu bat izatearena, ez bakarrik epailetan, prozedura osoan ere bai, eta kalean, sostengua ematen.

Ailegatu eta berehala ikusi nuen ertzain batzuek hasi zituztela istiluak. Nik komisaldegiko inspektorearekin eta hango ertzain buruarekin hitz egin nuen eta tratua zuzena izan zen. Kargatu zutenean esan nuen ez nintzela handik mugituko, eraikinean 48 bezero nituela. "¡Tú quedate!" erantzun zidaten. Ez nuen manifestazioan parte hartu, besoak gurutzaturik egon nintzen denbora guztian, zer gertatuko itxaroten, eta hala ere, lau aldiz etorri ziren ni jipoitzera. Oso larria iruditzen zait, ez ni pertsona gisa jipoitu nindutela, kaltetua ez nintzen ni, barruan zegoen jende hori guztia baizik. Oinarriko zerbait apurtu zuten: Nola edukiko duzu defentsarako eskubidea, zure defentsa ere jipoitzen badute? Ezin da ametitu. Salaketa jarriko dut, eta ez hori bakarrik, abokatuen elkargoan ere babesa eskatuko dut. Egin behar dut.



koa... Santurtzin bi daude, horietako bat, Mamariga auzoko kultur etxea da eta jendeak ez daki okupatua dagoenik ere; Kukutza baina urrunago joan da auzoko parte hartzea bultzatzeko orduan.

Jabetza eta interes ekonomikoetatik harago, zergatik sortzen du okupazioak eta autogestioak halako ezinikusi bat zenbait sektoretan? Kultura kontua al da?

Normalean errespetuzko joera dago. Ni musikaria naiz eta musika dut

gustuko, ez naiz Operaren Lagunen Bilboko Elkartearekin identifikatzen, baina hor dago. Azkuna nahiko politikari *populista* da —ez dut hitz hori gustuko, baina tira— eta neurri zorrotzak hartu izan ditu. Bera ez da Kukutzatik pasatzen, beno, baina ni ere ez naiz opera ikustera joaten, eta guztiok bizi gara hemen. Errekaldeko auzotar askok hauxe esan ohi zuen Kukutzatik: "Niri ez didate molestetzen". Elkar errespetatu dezakegu. ■





G-PUNTUA

www.gpuntua.com



final-haurdenak

2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

OÑATI

2011-10-22 Zubikoa kirol. / 17:30

Bertsolariak:
JEXUX MARI IRAZU, BEÑAT LIZASO, IÑAKI GURRUTXAGA,
AGIN REZOLA, IÑAKI ZELAIA, IBAN URDANGARIN

VILLABONA

2011-10-23 Olaederra kirol. / 17:30

Bertsolariak:
UNAI AGIRRE, BEÑAT GAZTELUMENDI, INIGO MANZISIDOR,
ANDONI OTAMENDI, ANDER LIZARRALDE, UNAI GAZTELUMENDI



Hauteskundeak Argentinan

Zer egin dute Kirchnertarrek argentinarren alde?

Urriaren 23an Argentinako presidente berria hautatzeko hauteskundeak egingo dira. Cristina Fernández da favorito nagusia, lehenengo itzulian botoen %50a eskuratu ondoren. Kirchnertarrek Argentinaren eraldaketa bultzatu dute peronismoaren itzalean. Baina kontraesanik ez da falta.

ALVARO HILARIO PEREZ DE SAN ROMAN



PASA DEN MARTXOAREN 11N, 70.000 pertsonak leporaino bete zuten Buenos Airesko Huracan futbol zelaia. Hogeita hamazazpi urte lehenago, beste martxoaren 11 batean, Peronismoak hauteskundetan izandako garaipena gogorazazi nahi zuten; hemezortzi urteko debekuaren ostean *Cámpora presidentziara*, *Perón boterera* lemapean egindako haiek, hain zuten. Ekitaldiak, bestaldetik, *Cámpora* doktoarearen udaberri ezkertiarren eta Cristina Fernándezen egungo Gobernuaren arteko lotura nabarmendu nahi izan zuen. Francok babestuta egon zen militarrek sortutako peronismoa ezkertiarizat jotzea, edo ulertzea bera ere, zaila egiten zaigu Euskal Herrian. Edozelan ere, presidentziarako hauteskundeak gertu diren honetan, Cristina Fernández da irabazteko favorito nagusia, peronista direnen eta ez direnen artean. Sostengu handia dauka biztanleriarengan.

Caseros etorbidea, Huracantetik metro gutxira, jendez gainezka dago. Ideologia askotako jendeak eta banderak badira ere, liturgia peronista da nagusi: dunbalak eta abestitxoak ozen entzuten dira; auzoetako biztanleak ekarri dituzten mikrobusak kale hertzetan daude lerrotuta; *montonero* gerrilla-

rien ikurrak, Néstor Kirchnerren, Peronen, Evitaren, aita Mujicaren eta Cristina Fernándezen irudiak nonahi daude, denak zuri-urdin kolorez tindatuta. 1970. hamarkadako imajinarioak eta gaurkoak bat egiten dute, antza.

1973ko ekainaren 20an Peron Madriletik bueltatu zenean, peronistek 13 hildako eta 365 zauritu eragin zituzten –armarik gabe guttiak, eta haietako batzuk *montoneroak*–; hori ulertzea ere zaila da. Ulergaitza da, baita ere, estatua saldu zuten Menem eta Duhalde presidentek eta gehiengoaren konfiantza duen Cristina Fernández, hiruak peronistak izatea. Batzuentzat, Peronek berak jasotako estatu kolpeak eta hamazortzi urteko debekuak ekarritako subjektibotasun okerren emaitza da hau guztia. Bestaldetik, ezin dugu ahaztu hirutan presidente (1946-1952, 1952-55, 1973-77) izan zen Juan Domingo Peronek jakin izan zuela hasieratik langileak erakartzen: berak promul-

Ezkertiarrak jazarri zituen arren, argentinar askoren gogoan langileria babestu zuen pertsonaia handia da Juan Domingo Peron

gatu zuen langileria babesteko legedi osoa, eta gerraosteko egoeraz baliatuz, mundu erdia hornituko zuen industriagintza eraiki zuen. Haren ondorioz jaiotako proletalgo berriak bat egin zuen Peronekin. Gutxi izan ziren ohiko sindikatu ezkertiarrekin geratu zirenak, artean oso ahulduta baitzuden. Juan Domingo Peronen agintaldian langileek estatuaren ondasunen %48 jasotzen zuten. Ezkertiarrek bortizki jazarri zituen arren, argentinar askoren gogoan langileria babestu eta oligarkiari aurre egin zion pertsonaia handia da.

Kirchnertarren ekarria

2003an Néstor Kirchner (1950-2010) presidente izendatu zutenean, Eduardo Duhaldek eta neoliberalismoak aukeratutako ordezkaria baino ez zen askoren aburuz. Hala ere, azken bederatzi urteotan, asko izan dira Argentinako Gobernuan egindakoak: “55 urte ditut eta egungoa da ezagutu dudana gobernurik onena. Jaioberri bakoitzeko diru laguntza, homosexualen arteko ezkontzak, militar genozidak auziperatzea, oligarkiak hedabideen gainean duen monopolioa apurtzeko legea, nire ustez, lorpen handiak dira; aspaldidanik espero genituenak”, dio Marcelo Maddio psikolo-



Cristina Fernández Argentinako presidente berriz izateko favorito nagusia da.

ezkertiarrek defendatzen dutenari ezin zaio eutsi. Amek bat egiten dute Gobernuarekin eta bere aldeko kanpaina egingo dute”.

Alderdi Peronistaren (PJ) presidentzia bereganatu ez ezik, kirchnertarrek jakin izan dute beren proiekturako oso ehun zabala josten: jatorri eta garai ezberdinetako militantek bat datoz Cristina Fernándezekin. “Historikoki, Argentinan, ezkerria antiperonista existitu izan da, Alderdi Komunista, kasu. Baina masa-mugimenduetatik at geratu da beti. Orain, haietako batzuk Gobernura hurbildu dira betikoa ez gertatzeko, jokoza kanpo ez geratzeko”, dio Nestor Apdelgani kooperatibistak. Ildo beretik, azalpen gehiago ematen dizkigu Fernando Krichmar zinegileak: “Peronismoa da Argentina gobernatzeko gai den mugimendu bakarra. Beraienak dira sindikatuak; beraiek dira masekiko benetako lotura duten bakarrak. Gainera, peronismoa dirua garatzen duen politika da; hau da, atxikimenduak eta babeskeria sortzen duen politika da”. Baina, zelan da posible aurrerakoia izan nahi duen Gobernuak Menem presidente ohiaren sostengua jasotzea? Zelan egon daitezke itsasontzi berean orain dela hamar urte eskas Argentinan porroteraino eroan zutenekin? “Peronismoaz hitz egiterakoan badira idatzita ez dauden legeak, mugimendua konprenitzeko ezinbestekoak direnak: ezin dira oinak lorontzitik –hots, alderditik– atera, eta borrokalditik galtzaile irtendakoak ez du ezer esaterik”. Hala ere, Gobernuak duen oposiziorik zorrotzena peronismoa bera da: Eduardo Duhalde presidente ohiak eta barnealdeko jauntxoek gidatzen dute Peronismo

Alderdi Peronistaren presidentzia bereganatu ez ezik, kirchnertarrek beren proiekturako oso ehun zabala josi dute

Federal izenekoak; muturreko eskuma liberala ordezkatzeko dute. Nestor Apdelganiren ustetan, “alde biek elkar behar dute; egon behar du ezkertiarrena egiten duena, baita eskuma islatzen duena ere. Hori bai, eskuma, Duhalde, Gobernuan egotekotan, kalean tiroka egongo ginateteke”.

La Nueva Unión obreroek beraiek porrotetik berreskuraturako inprimategia da. Huracan kantxatik oso gertu dago. Atetik, matea eskuan, Hector *El flaco* peronistek osatutako jende-zutabeei begiratzen die: “Guri dagokigunez, esan behar dugu gauzak ondo egin dituztela. Gurea bezalako egoerak legeztatzeke legea promulgatu ez ezik, enpresak guk geuk kudeatu ditzagun aparteko maileguak eta ikastaroak ere ematen dizkigute. Inportantea izan da oso hedabideen legea. Monopolioa desagertu den heinean, kazetari askori maskara erori zaie. Ezin dute, lehen bezala, gezurretan segitu”.

Silvia Boo Quilmes udalerriko Solano auzoan bizi da. Buenos Aires hiriburutik 30 kilometrora dago Solano eta behin Argentinan osoa asaldatu zuen mugimendu piketeroaren epizentroetako bat da. “Egia da lehen baino hobe gaudela. Kontuan izan behar dugu, hala ere, egungo kontsumoa maileguez eta diru laguntza publikoek bultzatu dutela. Askok da Gobernuak auzoetan sartu duen dirua. Ez dakigu, beraz, egungoak noiz arte iraungo duen. Badirudi kirchnertarren Gobernuari estu lotua dela. Segitzen dugu betiko sistema edukitzen –dio Book–. Eta, ohitura den lez, gizartea militarizatu dute, baita beren kontrakoa den edozein protesta gaiztotu eta kriminalizatu ere”.

Menem presidente zela, Estatu-ko petrolio konpainia (YPF) pribatizatzeko ezinbesteko laguntza eman zuen Santa Cruz probintziako gobernadorea zen Néstor Kirchner. Hamabost urte geroago, jendetza izugarriak eman zion agurra elizkizunetan. Egun, Che Guevara bezala, berea bada gazteak oldartzen dituen argazkia. “Egia bakarra, errealitatea da”, esaten zuen Peronek. ■



goak. “Brianen bizitza dirudi, ea erromatarrek zer egin duten galdeztzen dutenean: peronista izan ala ez izan, onartu behar dugu Kirchnertarren gobernuak sortutako aldaketak direla haiek guztiak”.

Behin Gobernura helduta, bere aginteari zilegitasuna eta eragin-kortasuna emateko asmoz, Kirchnertarrek ezkertiar asko deitu zituen berarekin lan egitera –peronistak eta ez peronistak–, haietako zenbait 1970eko hamarkadan onduak. Maiatzeko Plazako Amen presidente Hebe de Bonafinik berak esan zuen beren semeetako batek Plaza zeharkatu zuela Presidentearen aulkian jesartzeko. “Egungo Gobernua heldu zenean, duela zortzi urte, proiektu ezberdintzat jo genuen. Pentsatu genuen gure eskuetan hartu behar genuela. Inoiz egon ez den jarrera zabalik dagoela nabari dugu. Giza eskubideetan eta beste arlo askotan ere”, adierazten digu Hebek de Bonafinik. Ez dira gutxi, oraindik ere, jarrera berri honek txundituta laga dituztenak: “Denok dakigu teoria zelakoa den, zertarako borrokatu zuten gure gurasoek”, dio La Platako Hijos taldeko sortzaile eta kazetari Lucía Garciak. “Vasco, hau da dagoena; eta ez dago beste ezer hau baino. Gaur egun, alderdi

Hizkuntza gatazka

Hernaniko Udalak euskaraz egin nahi du lan

Irailaren 27an, Hernaniko Udaleko EAJko, H1!eko eta PSE-EEko zinegotziek plenotik alde egin zuten, Bilduk dokumentazioa gaztelaniaz ez ziela helarazi salatuz.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

ZER GERTATU DA Hernaniko Udalean? Zer dela-eta utzi zuten plenoa oposizioko zinegotziek? Bilduk beharrezko informaziorik gabe utzi al ditu oposiziokoak? Luis Intxauspe Hernaniko (Gipuzkoa) alkatea da, Bildukoa, eta hitz gutxitan eman digu bere irudipena: “Zinegotzi horiek lehen ere lan horretan arituak dira, Bilduko bederatzi zinegotziak berriak gara. Nik uste neurria hartu nahi zigutela eta hizkuntza kudeaketaren gaia muturreraino eramán dute. Plenotik alde egingo zutela mehatxatuta amore emango genuela pentsatuko zuten, baina guk ez genuen atzera egin”.

Euskaraz sortu, ez alderantziz

Baina utzi ditzagun alde batera alderdi politikoen arteko tirabirak eta heldu diezaiogun mamiai. Hernaniko Udalak nola kudeatzen ditu hizkuntzak?

Egin dezagun atzera, 2010eko martxoaren 25era. Egun hartan, udaleko alderdi politikoek (ANV, EAJ eta H1!) hainbat hizkuntza irizpide biltzen zituen dokumentua onartu zuten. PP eta PSE-EE abstenitu egin ziren. Dokumentu hartan jasotzen da ahoz eta idatziz euskaraz funtzionatuko dela, ez dela sistematikoki itzuliko, baina komunikazioa ziurtatuko dela beti hitzez hitzeko itzulpena ez den beste bitarteko batzuk erabiliz –ahozko laburpena eta laburpen idatziak adibidez–. Alabaina, gauza bat da irizpideak onartzea eta bestea egunerokoa aplikatzea. Bilduk 2010ean onartutakoa gauzatzeari ekin dio Udalean sartu



HERNANIKO KRONIKA

Irailaren 27ko plenoa, oposizioko zinegotzien eserlekuak hutsik daudela.

eta lehenengo batzordea sortu zetik. Ea etsenplu bidez praktika hori zer den azaltzen asmatzen dugun. Eman dezagun Hernaniko Udalean hirigintza batzordea bildu dela, han direla arkitektoa, idazkaria eta zinegotziak. Bilera euskaraz egingo da. Norbaitek ulertzen ez badu esan egin beharko du eta arkitektoak edo Bilduko kideren batek itzuliko dio. EAJ, H1! eta PSE-EEko lau politikaririk baino ez dituzte arazoak euskararekin eta ulertzeko nahiko ondo moldatzen dira. Hori ahozkoari dagokionez, jo dezagun hirigintza alorreko batzordea biltzeko deialdia egin dela. Bada 2010eko martxoan adostutakoaren arabera, deialdia euskara hutsean zabalduko da (lehen ele

bitan egiten zen). Deialdian eguna, ordua, tokia eta gai zerrenda agertzen da. Ahozkoan bezala, norbaitek ulertzeko arazoak izango balitu laguntza eskatu beharko luke eta ahoz azalduko litzaioke. Bilera egin dute eta hirigintzako idazkariak akta egin behar du. Dagoeneko ari ziren idazkari lanak egiten dituzten langile batzuk euskaraz egiten akta, baina hemendik aurrera, beti, euskaraz egingo dute. Euskaraz akta ulertu ez duen agintariak itzultzeko eskaera egin beharko dio alkateari. Alkateak egitea hobesten badu, Udaleko itzultzaileak gaztelaniazko bertsioa egingo du eta alkatearen eskuetan gertuko da testua. Hark emango dio behar duenari. Jo dezagun batzorde horretan arkitektoak zazpi txosten

ibili dituela esku artean, bost gaztelaniaz eta bi euskaraz. Bada, bere horretan jasoko dira aktan. Dena dela, ahalik eta epe motzengatik txostenak gaztelaniaz egiteko ohitura baztertu nahi da. Hernaniko Udaleko langile guztiek dakite euskaraz eta ia denek lortu dute dagokien hizkuntza eskakizuna edo perfila. Hala ere, ohituraz, teknikari batzuek txostenak gaztelaniaz egiten dituzte maiz. Asmoa txosten guztiak euskaraz egitea da eta bukaeran gaztelaniazko laburpentxoak, behar izanez gero.

Herritarak Udalarri eskaera gaztelaniaz egiten badio, udal barneko tramitazio guztia euskaraz egingo da eta herritarrari erantzuna bi hizkuntzetan bidaliko zaio. Euskaraz eskaera egiten duenari erantzuna euskaraz emango zaio, eta noski, Udalak jarrera hori bultzatu nahi du. Intxauspe atzera begira jarri da: “Hogeitaz dirua eta denbora inbertitu ditugu udal langileak euskalduntzeko, orain egiten hasi garena egiteko. Beraz, egin dezagun!”.

Sistematikoki ez da itzuliko

Bilera deialdiak, batzordetako aktak, teknikariak egindako txostenak... Udaleko langileek egiten dituzten dokumentu guztiak sarean daude eta Udal barneko edozeinek sarbidea du. Orain arte dokumentu horiek ele bietan, gaztelaniaz edo euskaraz (gutxi batzuek) zeuden. Bada, hementik aurrera gune hori euskara hutsean egotea da helburua. Idazkariak, teknikariak... euskaraz sortuko dute eta hori zintzilikatuko da sarean. Ulertzen ez duenak eskatu egin beharko du eta hari baino ez zaio helaraziko gaztelaniazko bertsioa. Zergatik halako egituraketa? Luis Intxauspe euskalgintzan urte luzez aritutakoa da eta badaki zer dakarren ele bitan lan egiteak. Euskarazko testua ezkerreko zutabearen eta gaztelaniazkoa eskuinekoan duen txostena erakutsi digu: “Niri langilea

Irailaren 27ko plenoan oposizioak esanak

Andoni Amonarraiz, EAJ: “Lehenbizi dietak kendu zizkiguten, eta orain, dokumentuak euskara hutsean ematen dizkigute. Zinegotzi batzuk ez dute euskara dokumentu teknikoak ulertzeko punturaino menperatzen, eta hori badakite”.

Estefania Morcillo, PSE-EE: “Euskara hutsean funtzionatzen dute, ez hitz egiteko orduan bakarrik, baita dokumentuak eta informe teknikoak egiterako orduan ere. Pleno honetan, gai ordena euskara hutsean jasoko dugu, eta horrek gure lana behar bezala betetzea galarazten du”.

Iñaki Arratibel, Hamaikabat: “Ez dute testigurik nahi. Euskara ez da inoiz arazo izan Hernaniko Udalean, eta Gobernu Taldeak oposizioari oztupoak jarri besterik ez du nahi. Triste da euskara helburu horrekin erabiltzea”.

Adierazpenak *Hernaniko Kronikatik* hartuak (irailak 29)

etortzen zait euskaraz hitz eginez, eskuan txosten hau duela, eta hasten da: ‘Horrela izango da zeren hemen jartzen du: ‘La aplicación del reglamento...’. Gaztelaniazkoarekin ari da lanean. Ele bitan funtzionatzeak,

“Hogeitaz dirua eta denbora inbertitu ditugu udal langileak euskalduntzeko, orain egiten hasi garena egiteko. Beraz, egin dezagun!”

**LUIS INTXAUSPE,
HERNANIKO ALKATEA**

neurri handi batean, gaztelaniaz funtzionatzea esan nahi du, Udalean, eta bestelako esparruetan ere bai”.

Hernaniko Udalak hizkuntza helburuak argi ditu abiarazitako prozesuarekin: oraingo hizkuntza ohiturak aldatzea eta Udalak euskaraz lan egitea. Bide horri esker, dokumentazio guztia sistematikoki bi hizkuntzetan egitea saihestuko da, hizkuntza bakarrean egingo da lan (gaztelaniaz ere bai oraindik), eta era berean, ohiko joera

baztertuko da, alegia, itzultzailea etengabe gaztelaniaz sortutakoa euskaratzen aritzea. Luis Intxauspe alkateak garbi utzi nahi izan du arazoa norena den: “Udalak hizkuntzekin daukan arazoa aipatu dute oposizio alderdiek, baina hemen hizkuntzarekin arazoa oposizio alderdiek, baina hemen hizkuntzarekin arazoa oposizio alderdiek zinegotzi horiek dute”.

Oposizioa ados dago orain

Lehen esan dugu nola Bilduk Udalean sartu eta lehenengo batzordean adierazi zuen 2010eko hizkuntza irizpideak betetzen hasiko zela. Bada oposizioak txosten juridikoa eskatu zuen, irizpide horiek legalak ziren ala ez jakiteko. Duela gutxi jaso dute erantzuna, irizpide horiek ez dira ilegalak. Urriaren 6an alderdi bakoitzeko buruak elkartu ziren txosten juridikoa esku artean zutela. Alderdi denek adostu zuten Bilduk proposatutakoa indarrean jartzea. Hori bai, dagoeneko oposizio alderdiek, PSE-EEk, EAJk eta H11ek, akta guztiak gaztelaniaz bidaltzeko eskatu dute. Erantzuna aztergai du Gobernu Taldeak. ■



Babeslea: **HABE**

HADE
Helduen Alfabetatze Berreuskalduntze Erakundea

105 eskalategi
1.500 irakasle
39.000 ikasle

munduoro
euskaraz

www.habe.euskadi.net
www.euskara.euskadi.net

“Norantz” proiektuaren datu-basea

59 HIZTUNI 782 galdera egin dizkiete *Norantz* proiektuaren datu-basea osatzeko. Egitasmoaren helburua ondokoa da: Iparraldeko euskaldunen gaur egungo gramatika oinarriak, joera handienetan, zer bidetik doazen ikustea, eta datu-base batean bildurik erakustea. Asmoa da euskal hizkeren gramatikaren bilakaera behatu ahal izateko metodoaren oinarria finkatzea. Beñat Oiarzabal da zuzendaria eta egileak, I. Epelde eta J. Salaberria.

www.norantz.org webgunean adin guztietako 59 hiztunei egindako galdera denak eta bakoitzak emandako

erantzunak daude. Hiztunek frantsezko esaldia euskaraz idatzi eta ahoskatu behar zuten. Galderak tankera honetakoak dira: “*Combien de livres a lu Beñat?*” “*Nous avons invité quelques amis*”.

Egitasmoa diruz lagundu dute Akitaniako eskualdeak, Euskararen Erakunde Publikoak eta Pirinio Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusiak. IKER zentroaren laguntza ere izan du.

202 doktorego-tesi Eusko Jaurlaritzaren webgunean

EUSKARAZKO doktorego-tesiak oso-osorik daude zintzilikatuta

Eusko Jaurlaritzaren webgunean (www.euskara.euskadi.net). Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko unibertsitateetan aurkeztutako tesiak dira. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Udako Euskal Unibertsitatearen bidez bildu du corpusa eta tesiak euskaraz egin ahala zintzilikatzen joango da.

BAHEA

Toni Mollà kazetari katalanak gipuzkoa.euskara.net-en esanak: “Badakizue, Espainiako Erreinuako Auzitegi Gorenak Kataluniako eskolen murgiltze linguistikoaren ereduaren kontrako ebazpena eman duela, epaile jaun-andreen arabera, Espainiako Konstituzioa oinarri duen erregimen linguistikoak ikasleek edo beren gurasoek hezkuntza zein hizkuntza koofizialetan jaso nahi duten aukeratzeko eskubidea ezartzen duelako. Ebazpenarekin, gaztelania irakaskuntzako komunikazio-hizkuntza gisa berriz txertatzera derrigortu nahi du Auzitegiak Generalitateko gobernua. ‘Europako Auzitegira joko dugu hemengo auzitegiak botere politikoaren aurrean kikitzen badira’, adierazi zuten murgiltze linguistikoaren aurkako bide judizialari ekin zioten espainismoaren militanteek.

Agian, indarrean dagoen araudi juridikoak, kohesio sozialaren eta aberastasun kulturalaren tresna gisa katalanaren irakaskuntza aukeratu zuten milaka eta milaka katalanen nahi legitimoak muga-tzen dituela onartzeko garaia iritsi da. Ondorioak hauek besterik ezin dira izan: araudi juridiko horren aurka egitea eta beste araudi bat jartzea indarrean, gizarte katalanaren nahiak eta bere gobernu legitimoak landutako araudiak bermatuko dituen sistema formal gisa”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Patronal eta kapitalismo asegaitzak

Azken egunetan Euskal Herriko eta Espainiako patronalaren ofentsiba basatiaren ikusle gara: garbi utzi dute kapitalismoa asegaitza dela. Ekonomia eta finantza krisia baliatzen dute betikoen kontura –langileak eta herri sektoreak– etekin handiagoak lortzeko. EAEko patronalak, Confebask-ek, erreforma fiskala egiteko proposamena aurkeztu du, aberastasun gehiago eskuratu nahian. Hauxe mahaigaineratu du: gizarte-segurantzaren kotizazioak jaitsi; jadanik oso murriztua dagoen elkarteen gaineko zerga oraindik gehiago murriztu; pizgarri fiskal eta kenkari gehiago lortu; eta kapital-errentek PFEZan eta abar jadanik duten trataera pribilegiatuan oraindik gehiago sakondu. Diotenez, lehiakorrek izateko, Alemaniarekin berdindu beharra dago; baina soldatak berdintzeaz “ahaztu” dira! Espainiako Enpresaburuen Elkarteen Konfederazioak, bestalde, A-20an aurkeztuko diren alderdi politikoei proposatu die kaleratzeak merkatze-ko –lan egindako urte bakoitzeko 20 egun, eta gehienez hamabi hilabetez– eta jai diren zubiak kentzeko. Beraiek turismoa nahi dutenean egiten dute baina.

“Nahikoa da” esateko ordua da. Krisia aprobetxatzen dute altxor publikoaren kontura kostuak murrizteko eta horren ondorioak langileen bizkar jartzeko, nola zeharkako zergen bidez eta baita lehen eskuratu zituzten eskubide sozial eta laboralak murriztuz ere. Gure erakundeetako politikariek, eragile sozialen laguntzarekin, euren eskuetan dute egunetik egunera basatiago jokatzen duen kapitalismoaren ofentsibari aurre egiteko aukera: erreforma fiskal zorrotza egitea. Ofentsiba hori baina, gobernuak eta administrazioek babestua eta finantzatua dago. Duela gutxi Madrilo egunkari bateko marrazkigile batek zioen bezala: “Kapitalismoa denak emanda... baina diru publikoarekin!”. Asegaitzak dira.

Juan Mari Arregi



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefonoa 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



PELLO ZUBIRIA

Jakintsuaren bertso berriak kazetariei jarriak

Bi Fukushima daude munduan 2011ko udazkenean. Bata, kasik ahantzia, udaberrian mundua ikaratu ostean udazkenerako normaldua... jendeen gehiengoarena. Beste Fukushima, berriz, larrialdi betean bizi da, oraindik kontrolatu gabeko hondamendia martxan duela; honen berri hedabide minoritarioek ematen dute soilik.

BIDEOA LABORATEGIAN GRABATUTA dago. Sartuko da euskaldun txapela jantzitako aitona, gitarra hartu eta kantatzen hasiko da *I pity the newspaperman* (“Erruki diot kazetariari”). Abeslaria Christopher Busby kimikaria da, 66 urteko gizona, Txernobylgo istripuaz geroztik zentral nuklearren kontrako kanpainan ari dena.

ARGIAREN gunetik ikus-entzun daiteke bideoa. “Erruki diot kazetariari / Ez daki nola heldu den / Gezurretan aritzera / Metodo maltzurerekin / Iturritzat hartuz gezurak / Heriotza trapitxeroenak / Gauzen egiak estaliz / Arnas ustel bakoitzean”. Ai Koldo Izagirrek har baleza Busbyrena eta koplak txukunetan jarri, Tapiaren *Québec* hartako kantariekin egin legez. Busbyrena oinarrituta dago Bob Dylanek aspaldi errun eta beste askok, tartean Joan Baezek eta Planxty taldeak, beren eran abestutako *I pity the poor emigrant* famatuan.

“Erruki diot kazetariari / Bizi den ordu bakoitzean / Hain dago bakarrik / Hain da huts eta botere-tsu / Iritziemaile hori... egunero / Umeak hiltzen ari dena / Bere burua zaintzeko / Ihesi ezkatutzen dena”. Zeinetaz ari da doktore polemikoa?

The Guardian egunkariko George Monbiot datorkio bati burura.

Honek, kontatua dugu beste NET HURBIL batean, artikulu famatu bat plazaratu zuen Fukushimako leherketen bihamonean aldarrikatuz justu orain bihurtu dela bera nuklearren aldeko, demostratu delako hitzontzikeria hutsak zirela ekologistek eta zientzialari katastrofistek energia horretaz egindako aurreikuspenak. Hitz batez, inor ez duela hil Fukushimak, balioko duela zentralen segurtasuna hobetzeko eta beharrezkoak direla nuklearrak klimaren aldaketari aurre egiteko.

Monbiotek ahoberoen eredutzat aipatu zuen Christopher Busby zientzialaria. Elkarren aspaldiko ezagunak, honek desafioa bota zion: zu eta ni aurrez aurre mahai-inguru publiko batean, epailea zuk hautatzera. Arerioak demari uko egiten dionez, kaskoan beti euskaldun txapela daraman Busbyk herri kirolarien moduan egin dio erronka berria: bertso jarrietan. Komunikazioan aditu denari, koplak motzetan.

Hala ere, kimikari kantariak –dozena bat kanta inguru dauzka Interneten, *Care Free* taldearekin– esplikatuko du kazetari askoz ari dela, ez denez baina. *Lobby* nuklearrarekin elkarlanean ari diren kazetariez eta zientzialariez. Kantuaren azken kopletan dio: “Doala sasi-kazetarien artera / Doala bere lagunetara / Uranioaren akzioak eta / Beren ete-

Ondoko irudian eskubikoa da Christopher Busby kimikari nuklearretan aditua, beti euskal boneta buruan. Argazkia 2008an egin dago, Suitzako Geneban, Munduko Osasun Erakundearen atarian zientzialariek, medikuek eta hainbat jende militantek erakunde horren eta zentral nuklearren jabeen arteko lotura salatzeako astero egiten duten protestan. Ulsterreko unibertsitatean egiten duen lanaz gain, ingurumen gaietan aholkuak ematen dituen Green Audit elkartearen parte hartzen du Busbyk, Galesko Aberystwyth hirian. Askok ikertu du erradiazioek dosi txikietan eragiten dituen kalteetan; orain artean bere ideiak gutxiengoan geratu dira zientzialarien artean. Fukushimak Txernobylek adina erradiazio isuri zuela salatzen lehenetakoa izan zen Busby joan den udaberrian, eta hilabeteak aurrera joan ahala gero eta datu gehiago diote hala izan zela.

kinak zaintzen ari direnetera / Salgai dauden adituen artera / Arnas adina gezur dagitenengana / Mundu osoa pozoitzen dutenetera / Heriotza erradioaktibitatearekin”

Christople Busby fisikan eta kimikan doktore da. Urte luzez Britainia Handiko Berdeen buruzagitzan aritu da, politikan eta militantzian. Hala ere Londresko Gobernuak behin eta berriro deitu izan du erradioaktibitatearen arriskuak aztertzeko osatu dituen adituen batzordeetara. Iraken eta Kosovon izana da uranio pobretuzko armen ondorioetan ikertzen. Metal astunen toxikotasuna ere asko landu du. Batzorde akademiko horietan ia beti geratu da gutxiengoan.

Atomoak ez du lekukorik nahi

Gure bilobek jakingo dute Busbyren eta bera bezala energia nuklearraren kontrako militante sutsuak diren Alexei Iablokoven eta beste hainbat adituen aurreikuspenak zuzenak ala katastrofikoegiak diren. Baina dagoeneko badakigu Fukushimakoaren larritasunaren asmatu zutela, “dena kontrolpean dago” ziotenek ez bezala. Bigarreneko asmatzen du Busbyk salatzean kazetari eta aditu askoren saldukeria.

Hona adibide bat, joan den aste-koa. Urriaren 7an Energy News



bitatearen neurketarik ez egin edo oker egin aparatuak lurretik aparte jarriz, eta abar luzea. Orain informazioen kontrol zorrotza legez arautzeraino iritsi dira.

“Japoniak lege bat onartu du poliziari eta zentralen jabeei Interneteko jarduera mugarik gabe behatu eta Internetetik Fukushimako erradiazioei buruzko informazio ‘txarrak’ elimintzeko”. Alexander Higginsek plazaratu zuen uztailen. Higginsek badaki zentsuraz zerbait, aste batzuetarako berari ere *itzali* egin baitzieten webgunea.

Bide batez esanda, Fukushimako albisteak segitzen dituzten kazetari eta boluntarioen artean bada ohitura berri bat: bideo edo idatzizko agiri interesgarri bat azaltzen baldin bada, norbera saiatzten da saretik *jaitzi* eta gordetzen, bada ezpada ere. Hala lortu da salbatzea eta berriro sareratzea material oso garrantzizkoak. Tartean telebista publikoek noizbait eman eta gauek goizera *desagertu* zirenak.

Gauaren eta egunaren artekoa adinakoa da Fukushimaz egunkari eta telebista nagusietan dagoen *omerta* zorrotzaren eta Interneten dagoen iturri aniztasunaren arteko aldea. Japonian bertan sortzen diren albisteak hainbat hizkuntzatan zabaltzen dituzte, agiri ofizialak bildu eta sailkatzen, uhartean aste betean ihartuko liritekeen kronika mamitsuak bizirik atxikitzen.

Hedatzaile horiengana jo beharoko dute informazio bila kazetari alferragoek Fukushima hurrengo astinaldia zabalduko denean. ■



agentzia amerikarrak zabaldu zuen honakoa: martxoaren 22rako AEBetako agintariak bazekiten Fukushimako 4. unitateko piszina zegoen erregai usatu guztia (%100) airean joan zela, 3. unitatekoaren erdia (%50) eta 2.ekoaren laurdena (%25) bezala. Gutxienez 336 tona atmosferara isuriak, tartean plutonioa daraman MOX erregaia 3. unitateak zeukana. Gainera, Alaskako haurren tiroideetan hautemanak zituzten erradioaktibitate aztarnak. Informazioa administrazioetik filtratutako e-postetan oinarrituta dago, osoki fidatzekoa da, beraz. Eta galdera: posible al da komunikabide nagusiek hori ezkutuan gordetzea?

Honetara helduta, zentsura aipatu behar. Fukushimaz zentsura


darabilte herrialde askotan. Errusian, esaterako. Errusiako estatuak diru publikoetatik milioika euro xahutzen ditu energia nuklearrari buruzko albisteak erazuten komunikabideetatik eta atomoaren aldeko *public relations* kanpainak pagatzen. Vladimir Sliviyak, Alisa Nikulina eta Maria Kaminskayak *Bellona* gunean erakutsi dute nola ordaintzen duen gobernuak Rosatom energia konpainia zuritzeko ahalegina.

Baina Japonian agintariak urrugo heldu dira. Jakina zen martxo-krisiaren ondotik han zer nolako manipulazioak burutu zituzten: urtean herritarrek jasan dezaketen erradiazio dosia legez handitu, informazioak ezkutatu, erradioakti-



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
 Kalitatea
 Garantia



Josemari Velez de Mendizabal

Europa batua?

M

unduko ekonomialari ugari dantza dramatikoan dituen krisiaren garapen beldurgarriak ez gaituela denok oharkabean harrapatu uste dut.

Begi arruntekin aspalditik ikusten zenari kolore aproposa jarri ordez, munduko “mandamasek” –ekonomiako guru ukiezinekin batera– eszenategi faltsua erai-ki zuten, euren interes politiko eta finantzarien arabera. Noski, alderantziz proportzionalak direnak, munduko hiritar arruntan ongizate iraunkorrek.

Bizi dugun kataklismoaren zurrumbilan interesgarria da Alemaniako kasua, Europar Batasuneko lider espiritual eta ekonomiko bihurtuta. Eta, aitortu behar da, bere meritu propioei esker bilakatu da europar lehen potentzia, mendebal-zibilizaziokook sorrarazi dugun uhin akabatzaileari aurre egiteko azken hirurogei urteotan estatu-estrategia industrial egokien diseinatu duena bera baita. Bere industria-egiturarako zutabe sendoak ezarri zituen Alemaniak, bigarren gerrateak herentziaz utzi zion orube material eta animiko desitxuratuaren gainean.

Alemania txikitua zegoen 1945ean, eta gutxi bailitzan aliatuek zatitu egin zuten estatua, gerrako harrapakin gisa. Baina alemanek agintari eroen aldiari azken puntua emateko demokrazia indartu zuten, eta horren oinarrian azpiegitura soziala eta ekonomikoari lehentasuna eman zioten, berriz ere Europa zaharreko herri garatuen aitzindaritzak eskuratzeko. Kapitalismoaren eta komunismoaren ortodoxia itsugarrietatik urrun, gizarte ekonomia alde jokatu zuen Alemaniak. Politika ekonomikoak argi eta garbi enfokatu zuen laguntza publikoaren beharra alemaniar guztientzat. Hori bai, lehiakortasunari eskaintzen zitzaion garrantzia, monolitismo antzuetatik libre egoteko.

Ez zien agintariei –Adenauer, Erhard...– pultsuak dardararik egin, gehien zeukatenei



DANI BLANCO

zerga handiagoak ezartzeko orduan. Gizarte justizia izango bazen, derrigorrezkoa zuten aberastasunaren bidezko banaketa. Baina alemanek bazekiten euren garapena Europari begira oinarritu behar zutela, europar merkatuaren laguntzarekin. Eta Europa Batuaren eraikinean lehenetariko adreilua alemanena izan zen, frantziar eskua beti izan zuelarik prest laguntzarako. Bi estatuek garbi asko zeukaten, lehenago ala beranduago, Bonn-Paris ardatzak europar ekonomia sostengatuko zuela. Eta hala joan zitzaien bici. Ongi, oso ongi. Bien bitartean, gainerako estatuek ahal zuten moduan jarraitu zioten ekonomiaren trenari. Batzuek, gainera, planteamendu kortoplazista ergelekin.

Europa Batuaren ideia ederrean, ordea, eragileek noraino sinesten zuten galdegai handi bihurtu da egun. Sustrai kultural eta soziologikoak zeharo desberdinak izaki, nekez pentsa daiteke hastapenetan inor prest zegoenik mendetako errealitatea sakrifika-tzeko. Hizkuntza desberdinak, usadio eta ohiturak bata bestearengandik guttiz urrunak. Panorama horretan ekonomiak ere baliabide eta apustu diferenteekin jokatu zuen. Eta,

normalean gertatzen den bezala, zentzuen planifikatutako egitasmoak izan ziren garaile.

Batzuek eta besteek ez dute era bertsuan ikusten euren etorkizun hurbila. Gora begira eguzkiari so aritu zirenek zailago daukate irtenbidea, euren etxeko lanak hobeto egin zituztenekin alderatuta. Eta Alemaniari gertatzen zaiona da, behin estatuaren berrelkartzearen kostu ekonomiko zein soziala gainditua dagoela dirudienean, Europako beste estatuei laguntza luzatu behar horrek ez diola batere graziarik egiten. Orain ez du gainerako europarrendandik horrenbesteko premiarik. ■

Europa Batuaren eraikinean lehenetariko adreilua alemanena izan zen, frantziar eskua beti izan zuelarik prest laguntzarako. Bi estatuek garbi asko zeukaten, lehenago ala beranduago, Bonn-Paris ardatzak europar ekonomia sostengatuko zuela



ASTE HONETAKO

zozketak



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN




Donostiako Aquiriuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3




Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museoteiza.org

4



Artez euskara zerbitzua

2011-2012

5 haurtzaindegi agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

5

AZKEN IRABAZLEAK (2293. Argia)

SAUSTA jatetxea

- Aitor Bravo Encinas (Leioa)

EUREKA Zientzia Museoa

- Ana M. Zubiarmenteria (Eibar)
- Iñaki Irureta Errasti (Zestoa)
- Iñaki Biain Salaberria (Donostia)

EKAINBERRI

- Ardatz Kultur Elkartea (Gasteiz)
- Izaskun Elizburu Urkizu (Zarautz)
- Miren Iturrioz Guiu (Andoain)

INGURU ABENTURA espeleologia II. maila

- Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentrua (Uhartea)
- Miren Olabarria Arana (Bergara)
- Joxan Apaolaza Bernedo (Oartzun)

ARTEZ ikasle agenda 2011-2012

- Ramon Andrinua Lazkano (Bilbo)
- Maddalen San Miguel Otegi (Zaldibia)
- Amara Berri Aek Euskalgia (Donostia)
- Mikel Ayllon Corral (Laudio)
- Izaro Sudupe Altuna (Azkoitia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia



XABIER LETE GOGOAN

DONIBANE GARAZI

Pier Paul Berzaitz
Erramun Martikorena
Arantxa Irazusta
Anje Duhalde
Petti

Bertsolariak: Amets Arzallus eta Xabier Euzkitze

Gonbidatu bereziak: Etxamendi eta Larralde

Urriaren 29an
Donibane Garaziko JAI ALAI Pilotalekuan
21:00etan

Sarrerak salgai: 15 €

www.kutxa.net (901111411)

Donibane Garazi Herriko Etxea

Turismo bulegoak: Garazi - Maule - Hazparne - Donapaleu eta Baiona

Antolatzailea:



**SAINT-JEAN
PIED-DE-PORT
DONIBANE GARAZI**

Temps fort au Pays Basque



+34 619 421 153



antza
komunikazio grafikoa

